1972 — AZAROAK, 12 XXXIII - garren urtea 506 - Zenbakia

zeruko ARGIA

IDAZKOLA TA BANAKOLA: OKENDO, 22 - SAN SEBASTIAN - TEL. 426666 - PREZIOA 7 PEZETA

NON LER

- EUSKALDUNA NAIZ, BERAZ GIZON
  Irastortza ... ... 3 garrenean
- HOBETU BAI, BAINA ALDATU EZ
  Ugalde ... ... 3 garrenean
- EUSKAL GAIETAN BARNA
  Knörr ... ... 3 garrenean
- «MICHELIN»GO AITAKERIAREN HERIOTZA
  Iza ... ... 5 garrenean
- AKITANIA ETA EUSKALERRIA
  Larrea ... ... 6 garrenean
- APAIZAK NUNDIK SORTU?
  Goenaga ... ... 11 garrenean

MIKEL ZARATE IDAZLEA

Derioko Seminario-ikastetxeko irakasle

"Txomin Agirre" nobela-sarian, irabazle

Ezaguna da euskal idazleon artean Mikel Zarate. Izan ere, aparejadore ikaskintzak egin bazituen ere, oso gaztetandik ekin zion euskeraz idazteari. Bizkaian, Txorrierriko Lezaman jaio zen orain dela hogeita hemeretzi urte. Beraz, amaren esneaz batera xurgatu du euskera. Etengabe euskeraren alde lanean ari den gizona dugu. «Gure Meza Deuna», «Alkartasun zarra», «Meza liburu txikia», «Bizkaiko euskal-idazleak» eta «Txikizaharre» nobela ditu idatziak orain arte. Derioko Seminario-ikastetxean jarduten da euskera eta euskal literaturaren historia irakasten. Udako ikastaroan ere irakasle dugu. Orain, berriz, «Txomin Agirre» nobela-saria irabazi du «Haurgintza Minetan» liburuaz.

—Irabazi barria duzu 25.000 pesetako saria «Haurgintza minetan» izeneko nobelarekin. Emaiguzu hitz bitan berorren haria.

—Hitz bitan esatekotan, esanda dago: haurgintza minetan. Baina, jakina, lehen bezela gelditzen gara horrela. Begira: Nire nobela horrek hari asko ditu, mataza bat da ta (umore beltz eta zuriz apaindutako mataza luze bat, lojikagabetasunaren lojikaz biribildutako ipuin-mataza bat), eta mataza hori argitzeko, desbiribilkatzeko, ZERUKO ARGIA bat osorik behar izango nuke. Gainera, hari guztiak ez dagoz agirian; ardatz-hariak izkutuan dagoz, irudipean, simbolopean, mozorropean. Mozorroz jentzitako nobela bat da "Haurgintza minetan" (izan ere, gure herriaren erdiminak adierazteko mozorro-bidez hitz egin behar...). Mozorroak irakurtzen dakienarentzat, mozorroen barruan nor edo zer dagoen ikusten ahalegintzen denarentzat, ulerterreza izango dela uste dut.

—Ordu asko kendu al dizkizu zeure eguneroko zereginetatik?

—Eguneroko zereginetatik ez, gaueroko zereginetatik bai. Gaua lo egiteko da; baina nik gauez asmatzen ditut nobelak, eta idatzi ere bai. "Gaua gauezkoentzat", esan ohi da; baina ni gauezkoa nauzu nobelagintzan. Egia da izan, nire begiak logura izaten dira, baina nire irudimena inoizkorik argien eta bizkorren egoten da edo, obeto esanda, ibiltzen da.

—Bai al duzu argitaratzeko asmorik?

—Bai. Ona edo txarra izan nire nobela hori, ondo edo txarto artu, badut argitaratzeko asmoa, horretarako idatzi bai dut. Noiz, non, nola eta abar ez dakit.

—Bizkaitar eta batasun-zale zarenez gero ez al dizu Bizkaiera baztertzeak minik ematen?

—Bizkaitarra naiz, bai. Eta bizkaitarra izango naiz, nahi ta nahi ez eta zorionez, hi larte, Bizkaian eta bizkaierazko giroan hazi ninduelako ta hazi nintzelako. Gainera, batasun-zale izateko ere, orokorra izateko ere, bizkaitarra izan behar, nahi ta nahi ez eta zorionez, Gipuzkoara, Lapurdira..., Euskalerriko edozein lurraldetara joateko bidea (eta bizkaieraren aberastasunak edonoiz ta edonora eroan ta edonori erakutsi ta irakasteko biderik onena) bizkaiera dudalako. Ezin, bada, nik bizkaiera baztertu, plazaratu baino. Nire jokabidea hauxe da: baturantz (baturik ez da sortu oraindino ta). Eta euskera baturantz joteko hauxe egin behar da, lehenengo ta behin: euskaldun izan, euskera ondo ikasi, ondo be ondo ikasi herriaren eta idazle zaharren altzoan. Behinola Juan San Martinek esaten zuenez: "Euskera aberastu nahi duenak, dijoala baserririk-baserri, herriz-herri ta euskalkirik euskalki; hor arkituko ditugu euskararen mamia, bizkortasuna, hitz ezezagun ta gainerakoak...". Eta beste behin Villasantek esan zuenez: "...etzaie beti gure idazle zaharroi merezi duten estimua gorde izan; erdal-joskera edo tajua dutela, erderakada asko sartzen dituztela, erdal-kutsua alde orotatik dariotela eta eztakit nik zeinbat akats egotzi zaizkien; eztut nik esango akats oietatik anitz egiazkoak eztiranik; baina guztiarekin ere, idazleok ezin esan halako mesede egin diote euskarari, eta badugu heurengandik zer-ikasirik asko. Euskararen una ta uriña edoski ta beretu nahi duenarentzat, ezin utziak dira". Herriaren eta idazle zaharren altzoan jarri, ta ikasi egin behar da, ba, lehenengo ta bat; ikasi ezin obeto (gipuzkera, bizkaiera, lapurtera...) bakoitzak bere euskalkia (ez erdalkirik), eta oinarri horretan sendo jarri ondoren, baturantz jo. "Haurgintza minetan" bizkaierazko oinarrian, zimenduan, eraikita dago; baina Zubero, Behe-Nafarre, Lapurdi, Nafarroa, Gizpuzkoa ta Arabako materialekin eginda; labur-labur esateko, euskeraz eginda, euskaraz irakurtzen eta idazten ondo dakiten euskaldun guztiak ulertzeko eran.

—Zer hartu beharko litzake bizkaieratik batasunerako?

—Zer hartu batasunerako? Orain arte hartu den baino gehiago bai, behinik behin. Izan ere, aspaldiko urteotan bizkaiera (eta euskararen jabe den herria) erdi baztertu egin dute batzuek (baztertu ezagutu barik gehienetan), eta heuren euskara batu bat jarri dute derriorrezko jarraibidetzat ("diktadura demokratiko" bat sortu ta gero), eta euskara bizia, jatorra, batua delakoan, euskara ez den edozelango mordoilokeria bat erabiltzen dute sarritan. Artifizialkeria ta indarkeriekin ez goaz inora. Horrela, batasuna egiten diardugulakoan, euskalki bat gehiago (euskeranto bat) egiteko arriskuan gagoz. Eta lehen ere nahiko nahaste dugularik, azkena izango litzake hori. Nahastea ez da batzea, eta ez da behin ere izango. Zer hartu bizkaieratik? Honetan "Liturjitzaindia" dugu jarraibide zuzen bat. Egia da izan, ez du batasunerako gramatikarik, morfolojiarik, hiztegirik egin; baina batasunaren barruan, izkutuan, dagozen gramatika ta morfolojia ta hiztegia erabili ditu, textoak eta herria (herria batez ere) beti aurrean izan dituelako, Euskalerri osoko kristau euskaldunak gogoan izan dituelako. Nola esan euskaraz "memento, Domine"? "Oroi, Jauna? Ez, Bizkaian ez da "oroi" esaten. "Gogoratu, Jauna"? Lapurditarrak ez dagoz konforme. Orduan, zer jarriko dugu? GOGOAN IZAN, JAUNA, esan zuen, orduan, batek. Hori, bai; hori, bai. Adibide bat bakarrik da hau, eta honelako adibide asko ta asko dagoz liturjiako textoetan: agintzeko-era laguntzaile gabe erabili, zeharreko flexinoetako aditza kendu behar ez denean ("Eta orduan Jesusek: "Ken hortik"), subjuntiboa erabili beharrean "-tzeko" erabili, eta abar eta abar. Euskera batu baterantz goaz (bateratua ez dagoen hizkuntza nekez sartu daiteke eskoletan eta nekez irakatsi daiteke), joan goaz oraindino (noiz helduko ote gara?), eta aurrera jo behar dugu guztiok (geldi egon gabe edo atzerantz egin gabe). Baino kontuz eta begiramenduz; izan ere, "euskara gaixoak operazio asko dauzka egin beharrak, eta guziak batean egin ezkero, hil liteke" (Orixe) eta "gu gara hizkuntzari makurtu behar gatzaizkionak, ez hizkuntza guri, gogoak ematen digunean eta gogoak ematen digun bezala" (Mitxelena).



—Bai al duzu idazten jarraitzeko asmorik?

—Asti gehiegirik ez dut horretarako. Baina, hala ta guzti ere, egunez edo gauez, loari ordu batzuk kenduta, idazten jarraituko dut Euskalerria maite-maite dudalako eta idazteak gaztetasun barri bat ematen duelako.

—oOo—

Durangon amaitu dugu elkarrizketa hau kafetxo bat hartuz. Beste lau gazte bizkaitar ditugu ondoan. Hauek ere euskerarentzat grinaturik, lan egiteko gogotsu. Gero liburu-azokara jo dugu. Pozik dago «Auspoa»koa. Gazte asko datorkio liburuak erostera. Xenpelar eta Txirrita dituzte gogokoen. Errezkan daude «Etor», «Jakin» eta «Lur» ere. Denda bete liburu dauka bakoitzak salgai. Harpidedun naiz hiruretan. «Non sartzen eta noiz irakurtzen dituk liburu hoiek denak?» galdatu diot neure buruari. Izan ere asko idazten da gaur. Asko irakurtzen ote?

ERRIALDE

(c) Ministerio de Cultura 2005

EUSKALERRI ZAARREKO OITURAK

ERRAMUA-EREÑOTZA

Erramu edo ereñotza misterioz inguratutako zugaitza da.
Nundik datorkio misterio ori?
Nundik, erriak dion errespeto ori? Bere orriak iraunkorrak diralako? Bere ostroak dituzten sustantziegaitik?
Ez dakigu nundik nora sortu diran erramuarekiko esaera ta sanisteak...
Baserri askok daukate etxe inguruan erramu zugaitza, ereñotza.

★ ★ ★

SANTIMAMIÑE:

Bizkai'ko koba ospatzua da Santimamiñe.
Leize barruan daude orain amar milla urte egindako dibujo miragarriak. Margazki aien aurrean egiten zituzten gure aurrekoak beren aztikeri ta sorginkeriak...
Santimamiñe leizeko mendia ereñotzez josia dago. Erramua baster guztietan. Ereñotzarekin batera esaera zarrak sorgiñez beteak.
Koba zuloko dibujoak, sorginkeriak eta ereñotza, orra iru gauza alkarrekin Santimamiñen.
Beste gauza bat ere ba mendi gallur-gallurrean: San Mielén ermitatxoa. Beerago, berriz, Santimamiñena.

Santimamiñe, edo San Mames:
«Sanmames, bart eindot ames;
ona ba da bion partez;
txarra ba da, bijoa aldrebes...»

★ ★ ★

SANJUANAK:

Ba dute Sanjuanak gure antxiñako eguzkiarenganako oiturekin zerikusirik.
Sanjuanak... suak... lorak... lizarra... goizeko itza... ta sorginkeriak. Orra zenbat gauza batean.
Ezin zeibean erramurik falta:
«San Juan gabean, etxe atarian egiten dan suan, erretzen dira aurreko urtean beinkatutako erramuak...»
«Erramu Egunaren besperan erretzen dira erramu zarrak. Ori, Sanjuan suak aurreatzea dala esaon oi dute zarrak...»

★ ★ ★

EKAITZAK ETA TXIMISTAK:

Tximistaren kontra aizkora koba aurrean jartzea, Arri-aroko oitura da. Arri-aroa Prehistoriako denbora bat da: arria erabiltzen zana lanerako tresna bezela. Aizkorak arrizkoak ziran.
Tximistari tximist-arri esan oi zaio toki askoretan. Tximistarekin batean arrizko aizkora erortze ementzan ta zazpi estadio sartzen lurrean...
Orregaitik edo aizkora tximistaren kontrakoa da.
Baña aizkorarekin batera bai erramua ere:
«Ekaitza sortzen danean, bi erramu orriekin gurutze bat egiñ eta bular gañean jarri...»
«Erramu bedeinkatua zapaian edo tximiñi atzean gordetzen da; ekaitza sorten danean, aldi bakoitzean, pittin bat erre bear da...»
«Erramu bedeinkatua, ekaitz egunetan erretzeko, gorde oi da; ta erretzean, garrik ateratzeke, erre bear da. Orretarako su-autza botatzen zaio gañera, estaltzeko...»

ANES LAZKAUKO

Ez Merkenak
Bai Onenak!
Janari bidez izaten dira
ganadu on, indartsuak,
Eta nora jo jakin bear du
baserritar burutsuak,
Berebiziko aragi pillak;
gañera esne putzuak,
Oiek guziak berekin ditu
Fanderia'ko pentsuak.
FANDERIA
ERRENTERI

NERE BORDATXOTIK

SEGUROLA NAGUSI

Oso sarrera polita, Zarautz'ko Zinema'n, Segurola zumaiarreren eta "Asti" getariarraren arteko norgeiagoka zala-ta. Ikusi genduen jokoa ere ona izan zala aitortu bear.

Galtzaille bat bear du beti, ta igandean "Asti" getariarra izan zan. Ez alegiñak egin etzituelako, edo ezer gorde zuelako, iritxi ezin zalako baizik.



Arrijasotze neketsu samarra da "Asti'k" egiten duena. Trebea dalako, indarraren poderioz asko jasotzen du, baiña maixu on batekin ikasia balego, ondotxoz lan geiago egingo luke, ta gutxiago beartuta. Ogeitabederatzi urteko mutilla da. Larogeitamar kilo bere pixua.

Laguntzaillea Patxi Ostolaza izan zuen Erlojeroa, Juan Joxe Roteta.

Lenengo amar minutuko tandan, 79 aldiz jaso zuen zortzi arruako zilindroa; bigarren tandan, 75 aldiz; irugarrenean, 71 aldiz. Guzira: 225 jasoaldi.

Bero ta gartsu txalotu zuen jendeak lan ona azaldu zuelako, ta geiago egiterik etzeukalako.

Dirua beti goitik egon zan Segurola irabazlearen alde.

"León-Castillo" galdu egin zuen Segurola'k. Berari egokitu zitzaion lanean lenengo astea. Segurola'ren diña (edadea): 24 urte.

Pixua: 93 kilo.

Laguntzaillea: Frantzisko Larrarte. Erlojeroa: Gabriel Lazkano.

Berebiziko erreztasunez bizkarreratzen zuen arria. Jasotzaille garbi ta egokia da.

Mendeko karga du zortzi arruako arria. Gorputz aundikoa baita.

Iru tandak era ontan izan ziran:

82 jasoaldi, lenengoan; 78, bigarrenean, eta 80, irugarrenean. Guzira: 240 jasoaldi.

Iru larogeikoren kontua dator, juxtu-juxtu. Oso ondo erantzutea esaten zaio oni.

Ainbeste jasoalditatik bakarra izan zan txartzat emana, edo "nulo" izendatua; Sarasola'ren irugarren tandako azken bigarren jasoaldia.

Beste danak, nola zumaiarrarenak, ala getariarrarenak, legezko jasoaldiak izan ziran; zalantzarik gabekoak.

Amabost jasoaldiren aldea atera zion zumaiarrak getariarrari, ta zortzi jasoaldi zeuzkan emanak bentaja modura. Sei sobratu zitzaizkion, beraz

Segurola irabazlearen iru tandak ikus ditzagun, minutuz minutu:

Zortzi jasoaldi, lenengo minutuan.
Zortzi, bigarrenean.
Zortzi, irugarrenean.
Zortzi, laugarrenean
Zortzi, bostgarrenean
Zazpi, seigarrenean.
Zortzi, zazpigarrenean.
Zortzi, zortzigarrenean
Zortzi, bederatzigarrenean.
Amaita, amargarrenean.
Bigarren tandan:
Zortzi jasoaldi, lenengo minutuan.
Zazpi, bigarrenean.
Zortzi, irugarrenean.
Zazpi, laugarrenean.
Zortzi, bosgarrenean.
Zazpi, seigarrenean.
Zortzi, zazpigarrenean.
Zazpi, zortzigarrenean
Zortzi, bederatzigarrenean
Amar, amargarrenean.
Irugarren tandan:

Zortzi jasoaldi, lenengo minutuan; zazpi, bigarrenean; zortzi, irugarrenean; Zazpi, laugarrenean; zortzi, bosgarrenean; zazpi, seigarrenean; zortzi zazpigarrenean; zazpi, zortzigarrenean; amabi, bederatzigarrenean; zortzi, amargarrenean.

Gogoz txalotu zuen jendeak. Pozik irten ziran danak plazatik, ikuskizun bikaiña izan zala aitortuaz. Bejondeizutela!

Federazioko gizonak: Artola, Egibar eta Beraza.

ESNEZALEAK ASARRE

Galizian eta Santander aldean esnezaleak asarre dabiltza.

Esne arazo au konpontzea ezta oso samurra, itxurak diranez. Min artzen duenak "ai" esaten du, ta beeko jendea da, ia beti, bereak eta bi ikusi bearrekoa.

Galizi'ko paraje batean, Sotomayor'en, ain zuzen, egunero 10.000 litro esne botatzen dituztela al duten tokira, irakurri degu Galizi'ko eguneroko batean.

Esneari zer egin eztakitelako; artaz baliatzerik eztaukatelako.

Esne-etxe batek, esne-zentral batek, erosteari utzi egin omen dio, ta nun saldurik eztaukatela geratu dira nunbait.

Triste ta pengarria benetan esnea dan bezelako alimentu bat atarramentu ortan ikustea!

Santander'en ere biurri dabiltza, ta berriro katramillak izango diran itxurak daude.

Esne-zentralak sobrean omen daukate esnea. Zer esanik ez esnearengandik sortzen dituzten obariak (productos).

Berri auek Galizi ta Montaña'ko periodikoetatik artu ditugu.

Itxurazko konponketa bat izatea nai luke, arrazoizkoa danez, "Diario Montañés" izenakiko egunerokoak. Zatirik argalenetik eztedilla eten soka, eskatzen du idazleak.

Nekazari ta ganaduzaleen naiak beteak izan ditezela; merezi dutena jaso dezatela. Au da eskatzen duena.

Alde guztietan lurrari bizkar ematen ari da jendea. Gaztedi danak fabriketarako bidea artu du.

Fabrikara edo atzerrira, extranjerira, ogia irabaztera. Lurrarekin eta ganaduarekin eztu ezer jakin nai gazteak.

Eta lurrak eta itxasoak eman bear digute aora eraman bear degun guztia.

Zer ondoren dakarki jokabide onek biar edo etzirako?

Jendea ugaltzen eltxuaren gisara, ta egilleak bakantzen beldurgarri.

Ederra etorkizuna bizimodua merkatzeko!

ERREZIL-GO SARIKETA

Ango zaindari San Martin jaiak datozela-ta, Dema Sariketa bikain bat eratu dute Errezil'en, uztarri motzean, au da, idibakarka.

Azaroaren amairuan, emezortzian eta emeretzian izango dira neurketak.

Amairuan jokatuko diranak: Itziar'ko Beristain; Lasarte'ko "Korta", idi birekin; Aia'ko "Izeta"; Toiosa'ko "Argaia"; Itziar'ko "Santuaran"; Castro Urdiales'eko "Bores".

Zortzi idi guzira.

Orduak: arratsaldeko lauterdietan eta gabeko amarretan saioak.

Emezortzian jokatuko diranak:

Lasarte'ko "Korta", irugarren idiarekin; Azpeiti'ko "Barrenola"; Donosti'ko Ibaeta baillarako Mujika, idi birekin; Ordizi'ko "Argoin", idi birekin; Ibarra'ko Izagirre, idi birekin; Altza'ko Joxe Erramun, idi birekin.

Amar idi guzira.

Saioak: goizeko amabietan, arratsaldeko lauterdietan eta gabeko amarretan.

Azaroaren emeretzian, azken eguna:

Igeldo'ko Lizarazu, iru idirekin; Tolosa'ko "Argaia", bigarren idiarekin; Deba'ko "Egurtza"; iru idirekin; Arrua'ko Urrezti; Azpeiti'ko Kerejeta; Mutriku'ko "Langa".

Amar idi guzira.

Saioak: goizeko amabietan, aratsaldeko lauterdietan eta gabeko amarretan.

Kontuak kontu, zenbaketa edo "suma" egiten badegu, ogeitazortzi idi dira Errezil'a azalduko diranak.

Era ontan dira lenengo sariak dirutan, erregaloak alde batera utzirik:

Lenengoa, amalau milla pezta;
bigarrena, amabi milla pezta;
irugarrena, amar milla pezta;
laugarrena, zortzi milla pezta;
bosgarrena, zazpi milla pezta,
seigarrena, sei milla pezta.

Nork esan orain ogei urte Errezil batera Santander'ko demalariak etorriko ziranik?

Oso apal eta umil asi ziran Errezil'en, baiña gogor ari dira indartzen. Jarri dira beste edozeiñen parean. Jendeak erantzun egiten du, ta sari onak jartzen alegintzen dira.

Au bezelakorik ezta probalariak biltzeko.

Basarri


soberaña FRANKE
JOSEBA ARZAC
karia
-Etxegilleentzat berezia
-Heurri guztietako arraskak

Cubetas GASTRO - NORM
Balleneros, 20 Entlo. - DONOSTIA - Urrutizkiña 41 88 80

(c) Ministerio de Cultura 2005

NEGARGUREA

Horixe da zenbait gorabeherak ematen digutena. Elkar desegiten ari gara. Hori da negargarria. Hori da agudo moztu bear duguna. Guk elkar desegitea nahi duenak bakarrik eduki dezake parregurea.

Izatez sorgin-zale bagera ere, ez genduke sorginetan sinetsi nahi. Baina badirudi ari dela gu sakabanarazten gaituen izkutuko indar bat lanean etengabe. Nola, gainera!

Mila talde egin gara Euskal Errian. Talde bakoitzak bere santuari pizten dio kandela Badu talde bakoitzak bere jainkotxoa. Eta horri lotua dago itsu-itsuan taldeko bakoitza. Lehenean gaude, aitortegitik aitortegira kontseilu eske ibiltzen ginan garaian bezelaxe. Ez gara gizona askatzen ari, gizona nor egiten. Jolasean jarraitzen dugu gizonaz. Atzetik jarraitzea eskatzen diogu itsu-itsuan, artaldeko ardiaren antzera.

Ez dira iritziak eta jokabideak eztabaidatzen. Halako edo holako jainkotzat edo zerritzat daduzkagu. Batzuentzat jainko, besteentzat zerri. Halako aldizkarietan agertzen diren ale guztiak eta lan denak onak dira. Beste hartakoak denak txarrak. Halako liburu-sortetan azaltzen diren liburu guztiak eta bakoitza onak dira. Beste hartakoak denak txarrak. Halako soziologilariren lanak denak onak dira. Beste harenak denak txarrak. Halako pentsalarik denean arrazoi du. Beste hark ezertan ez. Halako taldek dena ondo egiten du. Beste hark dena gaizki. Halako ikastola oso ondo ari da lanean. Beste hura oso oker. Hau, denean oa aurrerakoi. Hura, denean atzerakoi.

Ez dago elkarrizketarik. Ez dago egia eta arrazoi-trukerik. Talde batek bestea desegin nahi du. Jainkotxo batek bestea erauzi. Eta denok gizonaren izenean, langileriaren izenean, erriaren izenean, askatasunaren izenean, demokraziaren izenean.

Egiten ari garen burruka larri hontan, il edo biziko burruka estu hontan, elkar desegiten ari gara zoritxarrez, beste zerbait desegiteko ordez. Gure arrokeriak eta geurekoikeriak zorrozten duen ezten zorrotza burrukakideak zulatzeko, zauritzeko eta iltzeko erabiltzen dugu.

Izenik gabeko pekatu latz hontan jausiak gaude gehienok nik uste. Besterik ez dugu entzuten eta ikusten. Gure etsaiak jotzen duen soinuz dantzatzen garela dirudi. Ez dut uste hori pentsatzea sorginetan sinestea denik.

Sorgin hau zaindu behar dugu ongi. Hau ez zaintzearren beste mila sorginetan sinesten bait dugu. Eta gure asmakeria eta irudipen besterik ez diran beste mila sorgin hauek ere egiazko sorginak botatzen dizkigun sareak ditugu.

Arrunt itsu gabiltza. Lainopean bidea galdurik doan mendizalearen antzera. Jendea bidean erreta gelditzen ari da barra-barra. Egiazko burrukan erretzeak burrukari berriak sortzen ditu nonnahi. Baina burrukakideak elkar erretzeak etsipena eta eriotza dakar.

Eta zabor hau dena, itsuman hau dena, ikus-ezin hau dena, elkar desegite hau dena inon bildu eta pilatu bada ikastoletan bildu eta pilatu zaigu. Frutua eman eta zabaldu behar lukeen arbola hau geurok ihartu behar dugu. Hortarako bai ez dugula eskubiderik ez ezeren eta ez inoren izenean. Guraso askoren izerdiz, andereño eta irakasle askoren izerdiz eta laguntzaile askoren izerdiz kostata azten ari den arbolak ez du zapuzterik merezi. Galbide eta amildegi hortara ikastola eramatea baino obe da burruka hortatik erretiratu eta etxeratzea.

Arren ez dezagun ikastolarik urkamendira bortxatu. Utz ditzagun fiakaizkeriak, itsumenak, setak, besa-tirak. Elkarri amor eman dizaiogun. Ez gaitezen elkarren salatzaile bihur etsaiari lana erraztuz, kalean ahoz aho bait dabiltza zenbaiten izenak eta izkutuko bizitzak. Ez dezagun dena goizetik gauera aldatu nahi izan. Ar dezagun patxada eta arnasa. Ez gaitezen pendizean behera amildu, autoa aldapa-gora frenorik gabe geldirik edukitzeko, autoeskolan esan zioten txofer berria bezala, ez frenatzeagatik.

Pozik irekiko genduke gure aldizkari hontan elkarrizketarako leihatila bat. Baina zipokeriarik gabeko lanak eta izen-deituraz izenpetutakoak bakarrik argitaratuko genituzke.

Baina ez dezagun ileta hau negarrez buka. Gauza asko egiten ari da Euskal Errian. Errezelo txarrez beteak bagaude ere, denok borondate onez beteak gaude.

Euskaldun naiz, beraz gizon

Hori pentsatzeak, poza eta otz-ikara, biak batera sentiarazi dizkit. Euskaldun izateari zor bait diot gizon izatea.

«Euskaldun naiz, beraz gizon». Ondorio hontara iritxi naiz HERRIAREN LEKUKO liburuan 322-324garren orrialdeak Rikardo Arregiri irakurriz.

Baina ez dut esan nahi inolaz ere gizon guztiak euskaldun direnik. Ez eta euskaldunak bakarrik direnik gizon. Ez eta munduko gizon guztiak gizon izateko euskaldun izan behar dutenik ere. Nik, behar dudala izan euskaldun gizon izan nadin baizik.

Gizon bakoitzak bere gizakera du. Bere izen-deiturak ditu. Gizona, gizon jakina da, bestela ez da gizonik. Ez euskaldun, ez arabiar, ez galiziar, ez argeliar, ez ezer den gizona ez da inon. Ez da eta kito.

Ez da nik aukeratua ni gizon izatea. Ez eta gizon euskalduna izatea ere. Hori eman egin zait. Inguruak eman dit: lurrak eta lehenak, batipat; gizonez osaturiko lurrak eta kondairak, alegia. Nere izatea, nere izatearen mamia tajutu du nolabait nere inguruak.

Lurrak ematen dizkit nere buruan ernemintzen diren gogoetak sortzeko irudi eta gaiak. Lur hau, berriz, gizonaren zantzuz mamitua dago. Ez bait naiz ni aurrenakoa. Asko izan dira nere aurretik. Eta lur hori landu dute eta lur horri jite edo tankera berezia ezarri diote. Uka eziñezko eta uxa eziñezko zerikusia du lurraldeak, lurkerak, nere izaeran, nere izaeraren mamian.

Urteetan zehar, lurralde jakin hortan bizi izan diren gizonek gorabehera asko jasan dituzte. Gauza asko gertatu zaizkie. Mendez mende korapilaturiko kondaira bat egin dute. Eta kondaira horrek eta kondaira hori egin duten gertaerek egitura jakin bat eman didate. Gertaera hoien hari eta lokarrietatik zintzilikaturik nago. Ezin moztu ditudan zilbor-este ditut. Eta ez hori bakarrik, ez naute lehengoen gertaerek bakarrik tajutu; baita gertaera hoietaz herriak duen usteak eta iritziak ere. Eta ez gutxi.

Eta Euskal Herri deitu diote eta deitzen diogu ni tajutzen nauan inguru horri. Eztabaida ditezke non hasten eta amaitzen diren herri honen mugak. Eztabaida ditezke kondairaren zenbait xehetasun eta ikuspegi. Baina ez diteke uka gu bizitzen geran lur honi Euskal Herri deitzen zaionik.

Kondaira nola gertatu eta egin den segurantzi osoz jakitea, ez da gauza erraza. Baina aspaldidanik dugu gure Herria Euskal Herri delako ustea. Ez du guretzat beste izenik eta izanik.

Euskaldun naiz, baina euskaldun izate-hori, egiteko bat dut. Osatzen, egiten eta lantzen jardun behar dudan zerbait dut. «ORIXEren EUSKALDUNAK, euskaldun irenduen poema da» esan du Txillardegik bostehungarren alean. Horrek ez dit buruhauste haundirik ematen. Gu, bizi geranok, euskaldun irendu izateak ematen dit kezka eta min.

Ez naiz gizon osoa. Ez eta urreman ere. Etengabe osatzen jardun behar dudan erdi-gizon naiz. Eta ez dut beste erremediorik. Hori da gizonterdi izateko bide bakarra.

Baina gizon izan nahi badut, osatzen jardun nahi badut, nere zera edo kera jakinetik hasi behar dut: naizenetik, alegia. Eta ni euskaldun naiz, nahi badut eta nahi ez badut.

Hori onartuz eta landuz jardungo naiz gizon bezala osatzen. Hori ukatuz neure burua desegiten ari naiz, Irentzen alegia.

Beraz, euskaldun izatetik, hots, euskaldun izatea lantzetik hasi behar dut gizon izan nahi badut. Euskaldun izatea nereganatuagotzetik eta euskaldun izatea osatuagotzetik. Besterik esan eta egin dezake gizarte irentzailea onartzen duen zenbait jendek. Freud-ek esango zukeen bezala, «ni» arrotzak erasanik eta menderaturik dagoen zenbait jendek. Baina hori, «zeru» zurixka edo gorrixka izenean gizonari egiten zaion saldukeria besterik ez da.

Irastortza

EUSKAL GAIETAN BARNA

Lehengo astean esaten genuenez, euskal gaiak ikutzen direnean nolabait baztertu behar genituzke azterpen sinpleak.

Azterpen hauk, ordea, bitara zati ditzakegu. Alde batetik, borondate onez eginikoak, ikusi bait genuen, objetiboki despisteari laguntzen diotela. Baina, bestalde, eta honi begiratzen nion batez ere, itxura sakon batez presentatzen direnak ditugu, eta hauk besteak baino garrantzi haundiagokoak dira. Esan dezakegu azken hauek, normalki, borondate onekoei eragiten dietela ere. Azken hauek, gure herriaren interesen kontra jokatzen dute oso. Azterpen hauk direla-ta, herriaren izerdiz lorturiko zenbait erakunde (ikastolak, zenbait instituzio tipi, herrietako gazte-lekuak eta abar) pikotara joan dira edo pikotara joateko zorian dauntza gaurregunean.

Zeintzuk dira ba itxura sakoneko intelektual hauk? Zeintzuk dira hihugarren munduzale amorratu hauk, azken urteotan gurera etorri zazkigun aurrerakoi, sozialista, marxista, hirugarren munduzale eta nik dakita zer gehiago, intelektual hauk?

Duela zenbait aste, poliki azaltzen zigun Aurtiz-ek ikasleen problematika, gaurregun ikasleek planteatzen dituzten problemak nondik zetozen eta funtsean zertan dauntzan adieraziz.

Izan ere, gure herrian ikusten ditugun arazoak, mendebaldeko erresuna aunitzetan gertatu direnen antzekoak dira. Kapitalismoak jarraitzen du eta indartsu agertzen zaio Europako gazteriari. Sozialista eta komunista alderdiek beren estratejia aldatu behar izan dute oso, eta praktika mailan zeharo erreformista ageri. Beraz, gazteria altxatu da erreformista horien aurka, eta hartu duen bidea ezinago zorigaitzeko izan da, funtsean burjesiaren interesei ezinago hobeki laguntzen dielako.

Eta hau bere buruen jabe diren erresumetan. Inperialismopean eta bere buruaren jabe ez den herri batetan ez burjesiari, baina inperialismoari jokoa egitea gertatzen da gazteria honen jokabidea.

Beraz, bere burua intelektualtzat jotzen dutenak, funtsean erreakzionario gertatzen dira, sozialismoa eraiki edo ezarri ahal izateko oinarriak ukatzen eta zapurreatzen dituztelako.

Hau da, grosso modo, intelektual horien —burjes tipi horien— jokabidea; ez du luzatzerik merezi, aspaldi honetan gai honetaz asko idazten ari delako. Aipa dezadan, horregatio, exenplu bat, gehigarri bezala: Frantziako gobernuak zenbait ezkertiar talde autonomista mantentzen du Bretainan. Zerbait gehiago esan behar ote?

G. Knörr

Hobetu bai, baina aldatu ez

Hauxe duzu zenbait sindikatoren jomuga: gauzak hobetu bai, langile egoera, sariak, oporketak, eta abar bai, baina sistemaren barruan, ezeren aldakuntzarik gabe. Ez dute ezeren iraultzarik onartzen, ez dute horretarako modurik eta biderik ikusten. Gauzak dauden daudenean aldatzerik ez bada, ahal den eta kondizio onenetan irautea omen bidezkoena.

Burrukari baino elkarrizketari garrantzi haundiagoa damaiote. Ez dago, gaurregun produzio alorrean klase burrukarik, talde desberdinen interes desberdina bakarrik baizik. Horregatik huelgari oso nekez ekiten diote, eta hori gainontzeko pauso guztiak eman ondoren.

Elkarrizketa garrantzizkoa denez gero, unerik zailena, bihurriena, etenzorian aurkitu ditezkean momenturik garratzena, guztiekiko kontratoa izenpetzerakoan gertatu ohi da. Era honetako sindikatoek indarra duten herrialdetan, hots, Inglaterran, Alemanian, Suezian, eta abar, konbenio izenpetzeko harremanetan dabiltzan unetan, langileek ez diote huelgari ekiten, ezta nagusiek «lock-out» edo Indarkeriaz lantegi itxitzeari ere.

Era honetako sindikatoak, politikagintzan ere babes onurakorrik aurkitu ohi dute. Ez dira zuzenean politiko ekintzetan murgiltzen, baina politiko partiduekin daduzkaten harremanei eskerrak, ongi baliatzen dira politiko mailan.

Langile askok osatzen du mota honetako sindikato konformista. Baina militanteak ez dira hain burrukalari, apur bat merkantilista direla esango genduke.

Eman dezagun, herrialde batetan, sindikatoa indartsua dela. Honek, berak kontrolaturik daduzkan lantegitan ez ditu beste sindikatutako edo sindikaturik gabeko langilerik onartzen. Ugazabek ere nahiago dute sarritan, sindikato batekoekin konpontzea gehiagokoekin konpontzea baino errazagoa baita.

Horrelako langile elkarteak, enpresa itxura haundiagoa daduka, egiazko langile burrukalarien tankera baino. Bertan, liberatutako langile asko dago. Funzionarioek daramate lanik gehiena. Bertan zentralismo ikaragarria sumatzen da. Sindikatoko zuzendarien baimenik gabe egindako huelgak ez du sindikatoaren aldetik ezeren diru laguntzarik izaten. Horregatik, haundia da sindikal gizon hauen itzala, gainontzekoak ez dira hauen baimenik gabe ezeren pausorik ematera ausartzen.

Ikusten danez, batasun eta disziplina zorrotzaren bidez, indartsu azaltzen dira konbenioak izenpetzeko garaian. Bertan emandako hitza beteko dute, eta ugazabek ere badakite onean konponduaz gerora erantzun zuzena izango dutela.

Era honetakoa dugu, Ipar Ameriketako sindikatoa ere.

Guk, lan hauetan ez dugu epairik emango, irakurleak berak ere antz eman dizaieke, horrelako sindikatoaren alderdi on eta txarrei. Iraultza erabat bazterturik gelditzen da. Langilearen egoera hobetu bai, baina gauzak sakonki aldatu ez. Sasi-pake baten bidez esplotazioak jarraituko du, kapitalismo berriak bide erosoagoak eskainiko ditu: konforta, aurrerapenak, konsumo egokiera... eta dena kapitalismoaren morrontzapean.

Hitzetan, deklaraziotan, erronka jotzen dute, aldakuntzaren beharra aldarrikatzen, baina gehienetan hutsean gelditzen dira.

Mikel Ugalde

zeruko ARGIA

Zuzenadaria:

MIREN JONE AZURZA ARISTEGIETA

Nafarroa-Kantauri eta Aragoiko Kaputxinoak argitaratua (Kale Nagusia, 50-1.º Burlada-Pamplona).
Donostian: Okendo, 22
Tel. 42 66 66

ARPIDE SARIA:

Barruan	300 pezeta
Korreo batasunetako errietan	350 pezeta
Atzerrietako beste errietan	370 pezeta
Aldez	Aurrez galdetu
Salmetan (ale bakoitza)	7 pezeta

(c) Ministerio de Cultura 2005

BERRIAK

"Radio Gasteiz" delakoak Azaroaren 6an. ekin zion euskarazko irratsaio bati. Astelehenetik ostiralera eratua da eta hamar minuturen barrena iraunen.

Programazio bati atxikirik, astelehenetan kultura gaiak erabiliko dira, liburu berriak etab. Asteartetan, musika, disko berriak eta. Asteazkenetan, berriz, Euskal Herriaren Historiaz. Ostegunetan, Arabako gaurkotasunaz zenbait albiste; eta ostiraletan, azkenik, bertsolari saioak, jaialdiak eta beste.

IKASKETAK Urriaren 31ean. ekin zieten Iruñeko Unibertsitatean euskara ikastaroei. Honako ikastaro hauk Filosofia Fakultatean moldatuak dira —astelehenetik ostiralera—, Nafarroako Diputazioa eratzaile delarik eta Jose Basterretxea jaunaren zuzendaritzaren pean.

Azaroan, berriz, Barandiaran jaunak euskal etnologiari buruzko ikastaroak emanen ote dituen asmotan ari dira.

● **Dagorrete jaunaren arduraren pean hasiak dira aurten ere Donapaleun euskara ikastaroak. Aspaldidanik ari zaigu harako jauna zeregin hautan, eta dagoeneko lort ahal izan du bere inguruan talde baliotsu bat. Bihoakio hemendik gure zorion sutsuena.**

● Eibarko "Escuela de Armería" delako teknika eskolan, larunbat osoko jaia erabaki da aurtengo programa berrian barrena. Baina, jai izanik ere, hara non ikasle eta irakasleen artean sortu zen kezka, larunbat goizean ezer onuragarririk egin zitekeela, alegia. Zer egin, ordea? Eratu da inkesta moduko bat eta hona hautatu diren gai interesgarrienak: 1) EUSKARA IKASI. 2) Deportea egin. 3) Artea landu.

● **Tolosan hasiak ditugu Alfabetatze Ikasaldiak, "Lizardi" Kultura Elkartearen arduraren pean. Antton Amondarain, Maria Sol Oreja eta Migel Urteaga dira lehen mailako irakasleak. Jose Balerdi, Xabier Iraeta eta Nekane Urteaga, berriz, goi mailakoentzat.**

● Ondarrabian ere hasiak dira euskara ikastaroak, Amuteko Ondarur izeneko elkartea antolatzaile delarik.

● **Aita Fernando Etxeberria izendatu berri dute Bergarako Ikastolako Ikas-zuzendari.**

LEHIAKETAK Erabakiak ditugu "Ciudad de Irun" izeneko sariak. Dakikegunez, lau sari eman ohi dira urtero, euskaraz bat —poesiari buruzkoa— eta hiru gaztelaniaz: poesia, saiakera eta nobela.

"Jose de Arteche" deritzan euskarazko poesiari zegokionez, Yon Etxaide, Juan San Martin, Antonio Zabala eta Milagros Bidegain ziren mahaiko, eta bere garaian, Martin Iturbe jaunaren "Bizitzako Urratsetan" deritzan poesia lana saritu zuten.

Martin Iturbe Ikaztegietan jaioa dugu. Apaiz egin ondoren, Alegian izan genduen lehenik eta Ondarrabian gero azken hamabi urtetan. Hizlari iaioa, hizkuntza arras menderatzen duena. Idazle bezala, berriz, guztiz fina, egoki joskeran eta guti bezain argi eta erraza esanetan.

Azken urtetako ortografia arazotan alde batez zein bestez ezer guti iharduna. Sorterrian eta familian barrena ikasitako euskara da bere tresna bakarra. Izan ere berau aski, agian, orain arte landu dituen urratsetan zehar. Ipuin bat edo beste lehen ere egina du, bai eta lehiaketaren batetan saritua ere.

Hara ba non poeta berri bat sortu zaigun Ondarrabian. Ezkutuan zuen nonbait gure Martinek bere dohai berezi hau, bere adiskide eta lankide asko eta askok ez zekien alderdia, alegia. Halakoren batetan, bihozkada batek irtenarazi dio plazara. Zorionak.

Bestalde, "Ciudad de Irun" delako Sariketari dagokionez, diogun 1973 urtean poesiazko sariaz gainera, euskal ipuin sariketa bat ere izanen dela. Zorionak ere ba, antolaztaileei ere.

● **Azaroaren 26an. eratzeko da Bizkaiko Larrean "Olerti-Eguna", azken urtetan ohi denez. Egun honetarako propio eratua da poesia sariketa bat, hiru sailetan banatua: I) Olerki lirikuaz. II) Euskal Edestiaz Poema. III) Bertso-sail txikia. Hamar-hamabi lan desberdinak, laupabost ahapaldi bakoitzeko.**

Mahaiko, beti bezala, Nemesio Etxaniz, Eusebio Erkiaga eta Aita Onaindia.

IPARRA Ipar aldetik dator haizea; bai, iparretik azken hilabete honetan. Haize larria, nonbait. Eta harako haizeak hango berriak dakarzkigu, haizea bera bezain larriak.

Berriak, diogu, edo... ez honen berriak, lerro hauk argitara orduko gauzak arras aldatuak izan bait daitezke. Baina egin dezagun lehenik historia apur bat.

Guztiok dakigun arrazoiengantik, hego aldeko zenbait euskaldun joan behar izan du ihesik ipar aldera azken hamar urte honetan. Eta hau ez da dagoeneko salaketa ausarta bat, egunkari petralenean irakur ahal izaten ditugun notizietarik bat baizik, eta ez letra molde handienekin gainera. Hemendik joandako gehienek aurkitu izan dute bertan hala beharrezko bizimodu bat, ezin besteko kabi bat. Baina gehienek, esan dugu, ez bait guztiek. Izan ere, arrazoi batez edo bestez, Bidasoa hibaia ihesik iragan dutenen artetik, hirurogeitakak izan dira bortxatuak, Euskal Herritik kanpora atera daitezen. Eta aipaturiko hirurogeitatik, hogeita hamabost inguru, aurten. Beraz, argi dago ez doazela gauzak batere gozotzen Ipar Euskal Herrian ere.

Egoera honetan, hara non urriaren 6an. Frantziako polizia etxerik etxe ari izan zen egunsenti aldean, hego aldetik ihes egindako hamabi euskaldun preso hartu nahirik. Hamabiren bila, baina zazpi bakarrik aurkitu, gainontzeko bostak hanka eginak bait ziren, nonbait.

Xabier Zumalde, Manuel Garmendia, Jose Migel Lujua, Tomas Perez-Rivilla, Juan Jose Etxabe, Txomin Iturbe eta Manuel Pagoaga dira, goiz hartan harrapatu eta Euskal Herritik bidaliak izan ziren zazpi euskaldunen izenak. Zazpiak langileak, lau ezkonduak eta hiru guraso. Zergatik izan ote diren Euskal Herritik jaurtiak? Ba, diotenez, "ordre publikoa" Baiona inguruan nahasi omen dutelako.

Hilaren 10ean., berriz, hego aldeko euskaldunei egin zaien bortizkeria salatuz, lau gazte sartuak dira Baionako Katedralean **gose-greba** (gose-huelga) egiteko asmoz: Xanti Sallaberry, 22 urte, Donibane Lohizunen jaioa, langilea; Eñaut Haritsxelhar, 21 urte, Haritsxelhar euskaltzain jaunaren seme eta Bordelen Biologia ikasketak egiten ari dena; Beñat Oyharzabal, heraiztarra, 23 urte eta Bordelen ere ikasle ari dena; eta Mattin Larzabal, aihartarra, 22 urte, Pauen Lege-ikasketak egiten ari dena.

Katedralean bertan zortzi egun daramazkitelarik, Baionako euskal astekari den HERRIAk elkarrizketa bat egiten die. Hona hemen, guti gora behera galde-erantzunak:

"Politikaz ari ote zarete gose-greba hau eginez, ala bestalde? Hori ez dakigu. Gizonaren eta euskaldunaren nortasuna kontutan hartua izan dadin Euskal Herrian ari gara, gizona gizon bezala errespetatuz eta euskalduna euskaldun. Euskal Herritik bidaliak izan dira batere arrazoirik gabe; guk eskatzen dugu epaituak izan daitezela zerbait gaizki egin badute edo bestela libro utziak".

"Zer nahi duzue hitz batez? Zazpi euskaldun hoiek ukan dezatela ipar Euskal Herrian libro bizitzeko eskubidea, uste bait dugu euskaldun guziek dutela Euskal Herrian bizitzea merezi!".

"Zer uste duzue alda dezakeela zuek hola egoteak? Aintzinako alditan gose-grebalariak bestaldekoak ziren gehien bat; eta jendeak esaten zuen: **Oraino ere españolak? Joan daitezela Espainiara hemen ez badaude gustora!**

Oraingoan ipar Euskal Herrikoak gara, eta gure ekintzak erakutsi nahi du ipar Euskal Herria eta bestaldea elkarren anaia direla".

Hamasei egunen buruan, berriz, lau gazte kementsuok atera beharrak izan ziren katedraletik, medikuen iritziz haien osasuna arrisku batetan bait zegoen. Tartean, Frantziako administrazioak, lau gazteei batere jaramonik egin gabe eta inor tribunalek halakorik agintzeke, beste bederatzi hego aldeko euskaldun kanporatzen ditu Frantzian barrena.

Dena den, lau gazteak irtean bezain laster, beste zenbait sartua da katedralean bertan, haiek ekin zioten protestari jarraituz. Eta Baionako Katedralean ezezik, bai eta beste zenbait elizatan ere, hots: Baionako bertako San Andre elizan, Maulen, Donapaleun, Sokoan eta Bruselan. Guztiz laurogei inguru.

HERRIA aldizkarian egundainoko harrera izan du hauzi honek, bertako kazetalarien artean. AGUR, AGUR, GAZTEAK izeneko artikulu bat eskaintzen die "So Egileak". DEUS ONIK EZ, dio J.B.D. delakoak Frantziako Administrazioaren jokaera merkea salatuz. Gehexan Pontto idazle zorrotzak egin du bere ohizko eztenkada bat. Gehexan Lantziri periodista fina, berriz, jo-ta-ke ari da, han eta hemen kilikatzen, eta berari zor dizkiogu, batik bat, zerbait nahian gaur hemen aipatu ditugun berri kaskar hauk.

Tartean, Baionako Lizeoko ikasleak bat batetan kalera ateratzen diran, gose-grebalarien alde agertuz, alderdi politiko bat edo beste aipaturik gabe, gizatasunaren eta askatasunaren beraren onetan mintzatuz. Baionako ikasleen ageraldi hau izan omen da Frantziako Gobernua gehien bat kezkatu duena, zeren ez zuten inolaz ere sumatzen herria hauzi honen alde aterako zenik.

Baina, hauzia ez da hemen amaitzen, noski, ez eta amaituko ere. Duda-mudarik ez, problemak ez dira ahaztuz konpontzen —ez hemengoak eta ez antipodasetakoak. Problemak, aztertzen, sakontzen, besteren iritziak entzuten, elkarrizketan konpon daitezke. Bide arrazena eta "komenigarriena" ez da beti onena, ez eta zuzenena. Gure lau gazteek esaten zigutenez: gizona gizon bezala errespetatuz eta euskalduna euskaldun.

Zer nahi koloretako, euskaldunak euskalduntasun horri erantzun behar dio, hau bait da mundu honi sor diezaiokeen behinengo erantzun-bidea. Euskalduna euskaldun den neurrian bete dezake mundu honetako teatro itzalean papeladarik onena eta onuragarriena. Gainontzekorena egitea edo nahi egin izatea, "plagio" eta "pastiche" soil merkeenak bait lirateke.

LITERATURA VASCA **Atera berri zaigu Madrilen egundaino gaztelaniaz egin ez den Euskal Literaturaren antologia bat. Literaturaren beraren kondaira erruz bada ere erdaraz —euskaraz baino lehenago eginak gainera—, ez da sekulan egin maila orokor batetan euskal idazleen antologiarik gaztelaniaz.**

Literatura Vasca **deritzan honako argitaraldi hau, Gillermo Diaz-Plaja gazteltzainaren zuzendaritzaren pean egina da, eta "Mosaico Español" izeneko sailaren barrena argitara emana. Laurogeita bost euskal idazleren izkribuen itzulpenek osatzen dute antologia hau, eta sail izenak ("Mosaico Español") besterik badio ere, Bidasoa haruzko nahiz honuzko idazleak izan dira hautatuak eta bilduak, hizkuntzari berari geografia politikoari baino garrantzi gehiago emanez.**

Aita Villasanteren zuzendaritzaren pean, Ibon Sarasola (XVI eta XVII mendeak), Jose M.ª Satrustegi (ahozko literatura), Jean Haritsxelhar (mugaz handiko literatura, XVIII, XIX eta XX) eta Antonio M.ª Labayen (Elissanburu, Lizardi eta Orixe) jaun euskaltzainek hartu dute parte lan hau prestatzean, gainontzeko lanak Aita Villasanteri zor zaizkiolarik.

Baten batek, edota batek baino gehiagok, esan dezake, liburu honek ez digula euskaldunoi ezer eskaintzen, eta arrazoi du. Baina, behar bada —sinetsirik gaude—, Euskal Literaturaren gaztelaniaz eginiko lehendabiziko antologia hau ez dela inolaz ere gure kaltetan aterako, eta aitzitik, beti izan dezake dibulgazio mailatan ondorio onuragarririk.

Bestalde, liburu honek ez ditu autore guztiak aipatzen. Ezina lizateke, noski, baina hala ere, bada gure ustetan hutsune nabarmenik. Hautako bat izan daiteke Arrese Beitia, eta beste bat, ahaztu ezinekoa, gure Joxe Azurmendi.

Dena den, entzun dugu entzun, otxandioarraren zenbait lan propio hautatu zela antologia honetarako, baina, haatik, liburuan ez da harenik ezer agertu, zergatik ez dakigularik. Eta, ez dakigularik diogu, zeren Arrese Beitiaren lan guztien bilduma Aita Onaindiak moldatu eta argitara eman zituen —"Olerkiak"— euskal libururik argitaratzeko orain baino sasoi eskasago batetan (1959). Baina, jakina, sasoi hartan Arrese Beitia "karlista-fuerista" zenaren iloba Arrese Ministroa zen, eta...

Honela ba, Europarako abiadan 1972 urte "ireki" honetan, 1959 urtean ontzat eman ziren bertsoak baztertuak izan bide dira. Historiaren beraren zirikadak, nonbait.

LITERATURA VASCA. Mosaico Español. Madrid, 1972.

NORA... Durangoko Azokaren aurretik, **Nora naramazue** izeneko nobela genduen Donostiako Lur Editorialak argitaraturiko azken alea. Xabier Gereñori zor diogu azken ale hau.

Xabierrek lehen ere argitara emanak ditu bi nobela, **Arantza Artean** (Kuliska Sorta) eta **Argi bat iluntasunean** (Lur), eta beldur gara hirugarren hau ez ote den hiruretarik eskasena. Eskasena, diogu, zeren, gure ustetan, lehen biak sorketa lan bat eskaintzen zuten, eta prosa joria ez baina, bai itxurazkoa. Hirugarren hau, ordea, beste autoreren baten nobelaren batetan guztiz influiturik irudituz gainera, aski pobrea da eretan eta azalpideetan.

Badirudi prixaka eta harrapataka egina dela, eperen baten barruan, margotu gabe geratu den kuadru batetako oinarrizko marrazkia edo lehen dibujoa balitz bezala.

Bestalde, Xabierrek ohituak gauzkanez nobela guztiz erraza hizkuntzaren nahiz mamiaren aldetik. Beharrik ere gauza errezik, irakurle xeheen artean heda dadin eta zer irakurri izan dezaten.

Dena den, Xabierrek hobeto egin dezakeelakoan gaude.

NORA NARAMAZUE. Xabier Gereño. Lur Editoriala. Donostia 1972.

I.—KANTU ERRIKOIAK

Euskaldun fayo nintzan,
Euskalduna azi,
Euskara utzik amak
Eustan irakatsi;
Euskara maite maite
Zabaltz neugaz beti,
Euskara ill ezkero
Ez dot gura bizi.

Donostan Urriaren 29.an 1881.an
Felipe Arrese ta Beitia

DENETARIK Bilbaoko "Parte Zaharra" delakoa Conjunto Monumental **izendatu du Madrileko "Bellas Artes" Zuzendaritzak.**

Ez dakigu guk erabaki honek zenbateraino muga eta baldintza dezake Parte Zaharreko etorkizuna. Dena den, demagun —asko ematea bada ere—, Parte Zaharraren onetan ari direla. Baina, honen onetan hastekotan, gaude ez ote lizatekeen askoz ere onuragarriago izanen "El Corte Inglés" delakoak hartzen dituen lurrak "zona verde"tzat hautatu. Egin bezate inkesta bat. Gero gerokoak.

● Domusandu egunean, Oiartzungo "Intxitxu" Antzerki Taldeak **Aralar** deritzan obra aurkeztu zuen Urnietan. Harako antzerki lana, Teodosio Goñi —erdi kondaira, erdi mitologia— zenaren pertsonaian oinarriturik burutua da, eraz eta moldez Zuberoako pastoralen antzera taxutua.

● **ETOR editoriala adiztegi bat prestatzen ari da, orain arte Euskaltzaindiak onartutako erekin.**

● Altsasuan eratzeko da I Euskal Herriko Txistulari Topaketa. Oraindik asmoak baino ez dira, baina zerbait egin nahian ari omen dira Burundakoak.

AMATIÑO

(c) Ministerio de Cultura 2005

EUROPAKO LANTEGIAK

«MICHELIN» go Aitakeriaren Heriotza

Neumatikoen sailean ezaguna da benetan Andre eta Edouard Michelin jaunek sortutako lantegia. François da, gaur egun, aitonen lantegi zabalduaren gurpilak zuzentzen dituena eta noiz nahi ikus diteke bere semetzat dituen lamgileren artean nahasturik. Frantziako Clermont Ferrand izeneko hiriak ongi ezagutzen ditu lantegi honen hazikundea eta honi esker daduzkan hainbat alderdi zahar berrituak.

Michelinek, aita on batek bezala, 1898rako "langile-partizipazioa" asmatu zuen; 1902rako famili-laguntzak sortu zituen; 1909rako langileen lehen hauzoa eraiki zuen eta 1916rako ordaindutako lehen oporrak eratu zituen.

LANGILEAREN KOLONIZAZIOA

Adierazi diren abantail hoiek ez dira langile borrokaren bidez lortu. Langileen abantailak, jornalen handitzea edo lanaren gutxitzea langile leialtasunaren ondorea baizik ez dira, Michelinen nagusiarentzat.

Langileak, nausiak bezala, xentimo bat aurreratzeko bota behar den izerdiaz ohartu behar du. Burgesiaren balore nagusietaz langilea jabetu dadin, ahalegin guziak egiñak ditu, familiaren eskuetan hainbateko lantegia gordetzen saiatu den nagusiak.

Lurralde honetako gizonek ondo ezagutzen zituzten diruaren balioa, aurreratzearen egokitasuna, norberaren irtenbidea eta jatortasun baten estima. Michelin izeneko jaunak ziren balore hoien bandera, eta hauen bidez, dagoen tontorrera iritxi dela, esan zitekean.

Michelin izena daramaten nagusiek ertz ertzeraino eraman dute balore hoien estima eta jardunа. Lantegian ez dute soka mutur bat ere alferrikan galdu. Lantegirako joan etorria oinez egitea ez zitzaien lotsagarri eta teknikoasmaketak gordetzen oso abilak agertu dira.

Sail berean diarduten beste lantegiek nekez jakin zezaketen Michelin neumatiko berri baten berezitasunik. Urtetan zehar arrunt ezaguna zen neumatikoaren probaketa ere izkutuan egin ohi izan da. Bertako langilea bera ere, eskuartean darabilen lanaren garrantziaz ez da inoiz jabetu ahal izan

Hala ere, inork ezer ez jakinarren, denek denetaz dakitela uste dute "Nagusi banintz, zer egingo ote nuke txoko honetan?" da langileak bere buruari egin behar dion eguneroko galdera. Asmabide honetaz baliaturik probetxu haundiak egin izan ditu lantegiko nagusiak.

Bide hori erabiliaz, langilea gero eta barneago sartu izan da nagusi-sarearen mailetan.

Sare hori hausi dezakeanarentzat tokirik ez dago. Michelin lantegian lana egingo duen jaioberria Michelinen klinikan jaio ohi da, Michelinen eskolan heziko da, Michelinen Elizan ezkonduko da, Michelingo etxe batean jarriko da, Michelinen koperatiba batean jantziko da, Michelinen elkarteren batean atsegin hartuko du eta Michelinen kirol zelaietan haizea hartuko du.

Sare honen barnean tailerreko maixu izatera edo maila bat gorago daiteke, baina eginkizun hoietarako aukeratzen den langileak lantegiarekiko leialtasuna lehendikan agertu beharko du.

Michelingo nagusiak katoliko finak dira; eraiki dituen Elizak lekuko. Famili-gizon ez den langilea begi hotzez begiratua da eta apaiz-langileentzat aterik ez da irekitzen.

EGOERAREN ALDAKETA

Clermont Ferrand-go bost lantegietatik, tailer txiki bateko langileak egindu zitzaien lan-ritmoagatik gelditu ziren eko batean, Michelin aitarekiko lotura biguntzen hasi zen. Langileak nagusiaren beldur ziren eta beren arteko elkartasun berri bat hasi zen.

Hauek, langile gisan, hasi ziren pentsatzen. Michelin jauna ez dute geroztik aitatzat. Lanaren eraketaz eta jornalen gora beheraz hitzegiten hasi ziren. Irailaren 21ean, zuzendaritzatik ezezkoa jaso zutenean, gelditu egin ziren. 1968an lanean jarraitu zuten langile horiek, lan-oporraren lehen esperientziaz jabetu berri dira.

Gertakizun hau langile borrokaren agerpen sendoa izan da. Orain dela hamar urte, Michelinen eskolak langile batzordearen eskuetan ez uztearren, Estaduari eman zizkion F. Hichelinek Michelinek ez du langile hauzorik egiten jarraitu nahi. Behar ekonomikoak ere, horretara behartu du Michelingo nagusia. Clermont Ferrand-go lantegietatik at beste asko dira Michelin izena daramatenak: Kanadan, U.S.A.n, Alemanian, Euskal Herrian, Katalunian, Italian eta abar. Lantegi hauetako langileriak ez dute aitarik ezagutu eta sindikatoak errotuagoak daude.

Zaharrak, oraindik ere, oso lotuak daude Michelin "aitaren" sistemari baina gazteek ez dute sistemaren barruan ito nahi.

Azkeneko gelditze horretan, tailer txiki hori zela medio, lantegi osoa gelditu behar izan zuten. Enkargatuek eta teknikoek ez zituzten lanean jarri ahal izan langileek erabili nahi ez zituzten makinak. Michelinek alferrik jo zuen material bila bere beste lantegitara.



Clermont-Ferrandgo «Michelin» lantegian, lan-oporra egin zuten langileak.



Charles Levinson jaunak lortu zuen beste lantegiak laguntzarik ez ematea Clermont-Ferrandgo Michelineri.

C. F. D. T.-ek Michelin mailan eratutako nazioarteko langile batzordeak ongi jokatu zuen, eta Peninsulako Michelin lantegiek eman zuten material laguntza ez zen aski izan Frantziakoa ritmoan jartzeko. Herbesteko Michelinen langileak ez zuten ordu berezirik sartu nahi izan beren frantses anaiak onda ez zitezen.

Michelingo aitakeria historiaren babesean kokatuz doa. Bera galtzeko bidean dago eta bestetik, nazioarteko lantegiari erantzuteko bidean jarriak ditugu langile erakundeak.

Berri ona, zalantzarik gabe. Clermont Ferrand-ik datorkiguna.

D. IZA

AIZE BEROA SORTZEKO



INDUSTRIAN
KOMERTZIOAN
LANDARE LANGINTZAN
ELIZAN
GARAJEAN
HUMEDADEAK KALTERIK
EGIN EZ DEZAIZUN
BEREALA JARRI DEZAKEZU

MONARCH ERRETZAILLEAK

FUEL GASOIL, PROPANO, BUTANO ETA GAINONTZEKO GASAK ERRETZEKO BAI ETXE BAI INDUSTRIETAN MONARCH ERRETZAILLEA SALGAIETAN ONENA



IRUIÑAN
Navarro Villoslada, 23 Urrutizkiña: 23 52 40

BILBAON-8
Elkano, 33 Urrutizkiñak: 31 73 97 - 43 16 12 - 43 16 16

DONOSTIAN
EUSTASIO AMILIABIA, 1
Urrut.: 42 35 23 Ext. 88

Estudio Enparantzan, 1
Urrut.: 42 02 86

ural

BOUTIQUE
Gnekane
Gazteen, neska - mutilen, Boutique
31 agosto, 5 Urrutizkiña: 41 18 75
DONOSTIA

ESTABLECIMIENTOS ayestaran DONOSTIA

FERRETERIA
BURNI - SALGAIAK
Urbieta, 25

ELECTRODOMESTICOS
ETXERAKO ELEKTRO-TRESNAK
Urbieta, 27 - Isabel II, 2

RAILITE
LEGEZKO ZABALTXAILLEA
Aldaconea, 4

Urrutizkiñak:
44300 ta 426787

(c) Ministerio de Cultura 2005

Olerki-bilduma berri bat...

Eskuratzen dudan euskerazko liburu berri bakoitzak poz haundi-haundia ematen dit. Nere euskaldun adiskide maiteei eskerrak beti zerbait berri dadukat irakurtzeko euskal literaturaren alorretik. Azken denbora honetan euskal liburu ugari agertzen da, batez ere euskaldun idazle gazteen aldetik. Nere eskuetara heltzen diren guzti-guztiak atseginez beterik irakurtzen ditut eta bakoitzean zerbait lortzen dut nere euskera aberasteko. Hemen ez dut aukerarik euskaldunekin beren aberri-hizkuntzan hitz-egiteko eta nere baitan euskera bizia gordetzeko modu bakarra da euskerazko liburuak irakurtzea.

Orain begien aurrean dudan euskerazko liburu berria «Nere olerki txorta» izenekoa da.

Liburu honen egilea, Albizuneko Balendine izenez, ez dut gaur-arte ezagutu, bainan bere bertso eder-ederren bidez bere bizitzaren berriak neregana heldu dira. Balendine andrea euskaldun jatorra da, Euskal Herriaren bihotz-bihotzean sortua, Zumaia, Gipuzkoa-ko itsas-herri polita da bere jaio-tokia, eta hango San Telmo kalea «bere kalea» bere bertsoetan esaten digunez:

«San Telmo kalean
ni jaio nitzan;
ta gogoratzen naiz
gau ixillean,
zurru-murrua entzuten nuen».

Bere gurasoak ere euskaldun zintzoak ziren, aita itsas-gizona eta ama baserrikoa, olerkariak dionez «Kresala ta Garoa». Bere amaz oroitzen da «nere biotzaren jabe zu zere nere ama laztana» hitzekin, baita amonatxoaz ere / Nere amonatxo maite beti gogoan zaitut, zure azken urtiak begi aurrean ditut.

Euskerazko izen jatorrak / Goiz-Eder, Josu, Jon Imanol eta Asier / eman dizkie bere haurrei eskeinita dagoen olerki-txorta hau. «Esker ona» deitutako olerkian bere haurrez hitzegiten du, begi aurrean hain ederki ipintzen digu bere sendia «sukaldean exerita», Euskal Herriko etxeetan ohitura den bezala. Goratzen du amaren lana urrengo bertsoekin:

«Nere lana ez da oraindik
ludi onetan amaitu,
zenbat eta zarrago dan ama,
bere umeak geiago dute maitatu».

Gudarengatik Venezuela-n igaro dituen urteak ez dira bere olerkigintzan oihartzunik gabe gelditzen. Olerki hauek urrutiko Aberriarenganako maitasuna agertzen dute eta hauen artean olerki jakingarri bat aurkitzen da, Andima Ibinagabeitia euskal idazle ospetsuaren aintzatan. Ludian sakabanaturik bizi diren euskaldunak, noiz itzuliko diren beren Aberrira galdegiten du «Noiz arte Jauna?» izeneko olerkian eta bukatzen:

«alkar maiteko bagendu benetan,
ez litzake izango zoritxarrik».

Euskerarenganako gar sutsua ere bere olerkietan nabaritzen da batez ere «Euskera» deitutakoan. Euskera ikasi duen Walter Douglas, Reno-ko Ikastetxe-nagusiaren antropologo jakintsuaren omenez ondutakoa da. Asko gustatzen zaizkit urrengo bertsook:

«Ikusten danez gure euskera
ludi guzian da ezagutzen,
aberri aundiko unibersidadietan
euskera dute erakusten,
euskeraren berpizkundea
orain bai degula ikusten,
ez degu orain lo egin bear
gogor saiatu gaitezen.
Mundu guziko euskaldunak
baldin bagera batutzen,
gure izkuntza buru degula
askatasun billa, goazen!!»

Olerkien bilduma hau, lau zatitan banatuta, guztira 78 olerki dakazkigu. Zati hauen izenak dira: Nere oroitean, Ipar ta egoaldetik, Nere biotzeriak eta Gogoketak. Lehengo olerkia, izen berbera dadukana, hitz-aurrea bezala begiratu behar dugu. Hastean, olerkariak bertsoak egiteko bere zaletasun bizia aitortzen du esanez:

«Olerkia, zu zera
nere lagun ona,
zugan nik arkitu det
ainbat zoriona!

Euskera galant eta errazean egindako Balendine anderearen olerkiak irakurtzea benetan atsegingarria da. Segur nago laster haren beste euskerazko lan bat ikusiko dugula. Balendine andre, har itzazu nere zorionak!

Pragratik 1972ko Urriaren 22an.
(Txekoeslobakia)

NORBERT TAUER

AKITANIA ETA EUSKALERRIA

Ekonomiaren egoera sendotzeko, Frantzian, gure auzoko eskualdean, «Talde eragille» asko sortu da azkenengo urteetan. Esate baterako «Hora» (Hommes-Région-Avenir) edo G.E.T.I.S. (Groupe d'Etude et d'Initiative au Service des Pays de l'Adour), etab.

Talde aiek ekonomiaren eragipen bezela aipatzen dituzte, Garona ibaiaren aranari jarraituz, Toulouse-Bordele ardatza, edo Bilbo-Bordele, Akize-Donostia.

Dana dala, ardatz askoren erdian gure eskualdea dago eta talde eragille aiek, itxaropena, gure laguntasunean ezarri dute, ea emendik, eragipen geiago irixten zaien. Gure eskualdeari galdezka daude nolako erantzuna eman ahal dizaiegun beren arazoak konpontzeko.

Beste alde batetik, Akitania eta egoaldeko Euskalerriaren artuemanak, berez, gora ari dira eta orregatik, datorren illean, Montpelier-en batzar nagusi bat izango da bein eta betiko artu-eman oiek sendotzeko.

Batzar nagusi ori dala eta Bilboko Cámara de Comerciok argitara emango du idazti bat, liburu bat, Akitania eta Euskalerriaren egungo ekonomiaren egoerea azalduz eta bide batez, Akitania eta Euskalerriaren adiskidetasuna eskualde biak obeto ezagutu ondoren, azi dedin.

Akitaniaren auzo gera eta auzotasun au edatu bear degu maila eta landa guztietara. Bizierak, antz-antzekoak izan dira eta XXgarren gizaldiraarte, Euskalerriko eta Akitaniako lurgintza etxerako lain zan. Baserritxoak, lur eta abereak landuz, familiei eusteko bakarrik ziran, geiago gabe. Baserriak eta beren soroak tiki samarrak izanik, ekonomi autarkiarra zeramaten, ekonomi isila. Basoko fruituak: ezkurrak, gaztaiñak, zizak, grisolak, etab., bizikariak osatzeko ziran.

Baserritxoak, ekonomi isila zeramaten, baiña baziran orraitio, orduan ere, janari eta edari oso onak eta ospetsuak. Bordeleko maai-ardoak, Agengo aranak, Auñamendiko gazna alde batera utzi zuen; Euskalerria, ez ainbeste.

Orain, eskualde bietan, iraultza berezi bat ikusten ahal dugu.

Bizi molde guztiak berritzen ari dira eta badirudi berritze au biziegia dela.

LURGINTZA ETA ABELAZKERA

Gaurko idaztitxo onen bidez, lurgintza eta abelazkuntzaren egiturak aitatuko ditugu.

Lurraren neurriak onexek dira:

AKITANIAN

Auñamendi Atlantiarrak	*7.651*	*km²*
Dordoña	*9.219*	»
Gironda	*10.410*	»
Landak	*9.335*	»
Lot eta Garona	*5.382*	»
Akitania osoa	*41.997*	»

au da, Frantziako 7,6 %.

EUSKALERRIAN

Araba	*3.047*	*km²*
Bikzaia	*2.217*	»
Gipukoa	*1.997*	»
Nafarroa	*10.421*	»
Euskalerri osoa	*17.682*	»

au da, Españiko 3,5 %.

Akitaniak, 2.480.700 bizilagun ditu, Frantziako 4,9 % eta Euskalerriak, 2.343.500, Españiako, 6,8 %.

Akitaniak lurgintzari lotuak daudenak 240.000 izango dira eta gure eskualdean 128.000.

LURREN ZATITZE GARRANTSIZUENAK (HEKTARE)

	Akitanian	*Euskalerrian*
Aleak	*510.000*	*245.000*
Jorratzeko landareak	*42.000*	*19.000*
Industrizko landareak	*8.700*	*8.000*
Oriodunak	*7.800*	*8.000*
Lekadunak	*1.800*	*18.200*
Ortuariak	*16.900*	*21.100*
Frutak	*27.000*	*6.700*
Mastiak	*195.000*	*48.000*
Belardiak	*610.000*	*500.000*

Abereen arloan, zenbaki garrantzitsuenak, onexak dira:

	Akitanian	*Euskalerrian*
Bei-idiskoak	*993.700*	*243.400*
Ardiak	*720.900*	*774.800*
Auntzak	*13.400*	*27.500*
Txerriak	*553.200*	*262.400*
Zaldizkoak (Zaldiak, mandoak eta astoak)	*39.500*	*45.000*

LURGINTZA ETA ABELAZKUNTZAREN PRODUCTO ANDIENAK

Arlo onetan, produkto andienak onexek dira:

	Akitanian	*Euskalerrian*
Garia (Tm.)	*425.000*	*300.000*
Garagarra (Tm.)	*180.000*	*100.000*
Oloa (Tm.)	*56.300*	*30.000*
Zekalea (Tm.)	*14.400*	—
Artoa (Tm.)	*1.275.000*	*85.000*
Patata (Tm.)	*225.000*	*190.000*
Ardoa (Hl.)	*6.000.000*	*100.000*
Aragia (Tm.):		
Bei-idiskoak	*66.000*	*40.000*
Ardi eta auntzak	*9.200*	*10.200*
Txerrik	*45.500*	*28.000*
Zaldizkoak	*2.600*	*1.000*
Esnea (1.000 Hl.):		
Beiena	*10.595*	*3.200*
Ardiena	*377*	*750*
Auntzena	*32*	*130*

S. LARREA

TOLOSAN

Abestaldeentzat euskal abestiaren laugarren leiaketa

Itz oiekin zabaldu da Tolosan egin oi dan leiaketaren egitaraua. Laugarren aldiz eratu da. Aurten izan da lenengo aldiz abesgilleen saria. Baita euskal-musikari buruzko mai-ingurua ere.

Amalau abesti berri azaldu ziran abesgilleen sarirako. Biren artean banatu da ortarako zegoen 25.000 pezetako saria. «Accesit» bat eman zaie biei. Ez dakigu zergatik ola izan dan. Edo zeiñena zan onena erabakitzerik ez zegoelako ala biak ere naiko kaxkarrak ziralako aurreneko saria jasotzeko.

Mai-ingurua, Karmelo A. Bernaola, Julio Caro Baroja, Franzisko Eskudero, Agustin Gonzalez Acilu eta Rodrigo A. de Santiagorekin osatzen zan, Jose Luis Ansorena zuzendari zutelarik.

Gauza asko esan zuten, baina bakoitzak bere aldetik jo zuala dirudi. Ez dirudi musikariak erabakirik daukatenik zertan datzan euskal-musikaren muina. Ortik asi bear zutela dirudi mai-ingurukoek. Baina bai zera! Purrustaka eta parrastaka ibilli zan Juan Eraso. Egia biribillik franko esan zuela uste dugu, ordea. Agian euskal biotza falta zan maixuen artean.

Jakin bear luke Iñaki Linazasorok ere «Begiraleak-Oldarra» taldea euskalduna dala eta ez frantzesa. Euskal Erriko erriak bait dira guk dakigunez Donibane Lohitzun eta Biarritz.

Donostiako «Donosti-Ereski» taldeak irabazi zuan andre-gizonez osaturiko saillean. Tolosako «Leidor» taldeak berriz, abots berdiñekoan. Eta bigarren eta irugarren, «Begiraleak-Oldarra» eta Nafarroako Billabako «Coral Santa Cecilia» aurreneko saillean. «Coro Deustoarrak» eta «Coral Lartaun» bigarren motan.

Arritzekoa da solista ona eskatzen duten abestiak ezartzea naitanaiez abesteko. Eta kanpoko abestiak aukeratzea zenbait abestaldek euskal-abesti leiaketarako. Ez al dago euskal-abestien artean naiko aukera, Bach, Dowson eta Ruso ezezagun batengana jo gabe?

Alaz guziz ere esan bear dugu garrantzi aundiko leiaketa izan dala eta ori antolatzen jardun diranak maixu agertu dirala. Ondo baiño obeto eratutako leiaketa iruditu zaigu antolatzaillen aldetik. Amaika lan artu dute. Zorionak, beraz.

Aranegi

Bizkortasuna

Serbitzu egoki baten izena.
Gure jardun guztietan
beti elburu bera:
Arazo bakoitzarentzat erantzunik onena.

Egunero gure lantokietan aztertzen, zuzentzen
eta konpontzen ditugun eginbeharretako
bizkortasuna

Eta gure serbitzu baliosekin batea
arrerarik atseginena

Etor zerori eta ikus

CAJA DE AHORROS PROVINCIAL DE GUIPUZCOA

SERBITZU BIZKOR ETA ATSEGINA

(c) Ministerio de Cultura 2005

LIBURUAK

JUAN IGNACIO DE IZTUETA

Gipuzkoako Aurrezki Kutxa Probintzialak argitaratu duen Javier de Arambururen liburua duzu hau. Euskeraz eta erderaz dela dio hasieran, baina erderaz eta euskeraz duzu. Aurrena erdera eta gero euskera. Gainean erdera eta azpian euskera.

Zeinentzat eta zer asmoz egina dagoen eskeintzako lerroetan ikus dezakezu:

«Esku-liburu sorta onetako bigarren ale au, Gipuzkoako Aurrezki Kutxa Probintzialak probintziko gazteeri eskeintzen die. Gure Gazteen Klub-aren bitartez, Gipuzkoako Aurrezki Kutxak gazteen arteko arremanak eragiten ditu, eta gipuzkoar txikiendako eginkizunak eraitzen aalegintzen da.

«Dantza izan da Euskal Erriko agermen bat eta ortik dator Iztuetak gure dantzaren alde egindako lanaren garrantzia...

«Ori dala-ta eskeintzen die gaur liburuxka au, bigarrena bere saillean, Gipuzkoako aur eta gazteeri, Iztuetaren berri jakin dezaten».

Labur, bizi eta euskera erraz eta egokian emana dago iztuetaren bizitza. Gaztetxeek, euskal-dantza eta abestietan murgildurik dauden gaztetxoek batez ere, pozik irakurriko duten liburua da.

Eskeintza ez bezala, euskera baturakoian idatzia dago. Euskaltzaindiaren arauak eta gaurko batu-zaleen joerak onartu dituela dirudi. Baina penagarria den bezala ez ditu zaindu zenbait xehetasun. Erabat onartu duela dirudi zorioneko h sorgina, bai hitzen hasieran, bai izenordekoetan, bai bokal-artean. Eta liburuan zehar: oitura, ari-apustu, asiera, ori, herria, lehen, zahar, hau... irakur ditzakezu. Nahasketa berdina egiten digu l-ll, n-ñ, hizkiekin: zebillenean, ibiliko; apaina, doñu. Baita a mugatuaz ere: gauz, Azpeitin, Zaldibian, Donostian. Ikusi dugu bahina *beldurgarri bat ere, baina hori ez dut uste egilearen erruz denik.*

Halere azalez eta mamiz ongi moldatutako liburua dela esan behar. Euskal dantza eta doinuetarako gogoa erneko duela uste dut gaztetxo eta haurren bihotzetan.

Bukaeran esaten diena ezarriz amaitzen dugu: «Gogoan hartu, gaztetxo, Iztueta ez zela dantzarengatik bizi izan, asieran esan dugunez, beste lan asko egin beharra tokatu bai zitzaion... Ez zera ez dantzari ez eta musikari esker biziko. Bainan Iztuetarekin oroituaz, dantzari esker ez bizi arren, dantza, musika eta Euskal-herriari zor diogun maitasunarekin bizi zaite».

Irastortza

PIO BAROJAREN LEHEN SARIA

DEIA:

Bera Bidasoako "Gure-Txokoa" soziedadeak, Pio Baroja jaio zen ehun urte betetzea ospatzeko, ipui sari bat antolatu du, idazle berriak sortzeko asmoakin. Nafarroako Diputazioa, "Delegación Nacional de la Cultura", Nafarroako Aurrezko Kutxak, Iruiñeko Aurrezki Kutxa Munizipala, "Amigos del País", eta bertze soziedaderen laguntzarekin.

1.—Sariketa honetan parte hartzen ahal dute ipuin berri guztiak, gaia libreakin, euskeraz edo erderaz idatziak eta hamar foliotatik pasa ez ditezenak.

2.—Bakoitzetik lan bat bakarra onartuko da, eta hogeita hamar urte bete gabekoentzat da.

3.—Orijinalak BERA BIDASOAKO Gure-Txokoa soziedadera bidaliko dira, sobre itxi batean eta sobrearen gainean PIO BAROJA SARIA, idatzita.

4.—Lana makinaz bi lerro hutsik utziaz egonen da. Hiru kopia bidaliko dira bere izen-buru eta lemarekin. Berarekin ekarriko dute sobre itxi bat lehen esandako lema berarekin gainean idatzita. Sobre horren barrenean idazlearen izena, zuzenbidea eta ipuiaren izen-burua biali behar dira.

5.—Lanak abenduaren 15ean eguerdiko ordu bata baino lehenago bidali behar dira.

6.—Bi sari izanen dira bat euskeraz egindako idaz-lanarentzat eta bestea erderaz egindako lanarentzat. Irabazle bakoitzari 15.000 pezeta eta oroitgarri bat sari bezela emanen zaizkio.

7.—Abenduaren 28an Pio Baroja jaio zen egunean juraduaren erabakia jenden ainzinean emanean da.

8.—Bera Bidasoako "Gure-Txokoa" soziedadea lan hoien jabe bezela agertuko da hiru urteen barrenean.

9.—15 urte bete ez dituztenentzat ere izanen da "Aurren lehen sariketa" bi sariakin. Bat euskeraz egindako lanarentzat eta bestea erderaz egindako lanarentzat. Bakoitzak 2.500 pezeta saria eta oroitgarri bat izanen dute. Bialtzerakoan jarri kondizio berak izanen dituzte. Desberdin hauxe bakarrik: idazlan horiek lau foliotatik ez ditezke pasa

Liburuen urratsetan

Nobel sariaren inguruan

Et dixerunt ad invicem: «Nonne cor nostrum erat in nobis, dum loqueretur in via, et aperiret nobis Scripturas?»

Lukas, XXIV

Neruda, Becquett, Asturias eta beste bakar batzuk bere Nobel saria baino lehenagotik nituen ezagunak. Yamawata hil berria, eta hain zorrotz epaitu gaituan Soljenstein ez nituen ezagutzen. Saria baino lehenagotik nuen ezaguna Heinrich Böll ere, bainan bere «Las opiniones de un payaso» liburuak ez zidan gauza bereizirik, zirrara nabarmenik ekarri. Harritu egin nau aurtengo sariak, ez, noski, Böll erdipurdikoa delako, ahazturik nuen neure irakurgai nuelako baizik. Beste liburu bat gehiago. Horixe izan zen nere Böll-en lehendabiziko irakurketa. Besterik ez, katolikotasun bitxi eta paradojikoak sortu zidan harridura ezik. Harritu egin nau aurtengo sariak bainan ongi ulertzen dut, geroago azalduko ditudan zenbait arrazoirengatik. Ez dut aipaturiko liburua berriz ere irakurtzeko betarik izan eta horregatik dut nahiago Nobel sariaz idaztea, nere Böll-i buruzko iritziek pailaso (eta ez nuke nahi pailasoak nerekin haserretzerik) batenak izateko arriskua bai lukete. Hobe dugu Böll jainkotu-berria beste baterako uztea.

Denok dakigu nola sortu zen Nobel saria eta alferrikakoa deritzat hortaz jardutea, dinamitak *kultura* ekarri duela gogoratzea ezik.

Beraz, Nobel saria gizon damutu batek eskeinia da. Munduak barkatu ote dio bere *pekatua?* Hala balitz, aurrera eta pikotara Nobel sariak, Nobel saria jasotzen duena munduko idazlerik *onena* dela pentsatzen badugu behinik behin.

Gogorra litzakeen honi bigunegia dela deritzat, ze, Nobel feria honek eta Planeta sariaren azokak eta beste zenbait sariren prostituitzeek alferrigaldu digute literaturaren zentzua. Noski, eta ez da ukatzekoa, sariek zenbait gauza ezezagun eta interesgarri aurkezten eta *herrikoitzen* dutela. Noski, baitare, hain ospe eta banketxe haundiko sari hoiek zenbait idazleren bizitza-guztiko lana ordaintzen dutela. Eta estimagarri da. Bainan eroetxeetan bezala gertatzen da sari-hauzi honetan ere: Ez daude diren guztiak, ez da ere dauden guztiak dira sari honen merezigarri.

Sari hauek ez dute literaturaren berritzerik saritzen, eta literaturaren formari buruzko aurrerapenetan dira beldurtien. Hainbat mugimendu berri ezagutu dugu jaio berritan itoa! Literatura, berez eta definizioz, berritze etengabe bat da, sorketa bai da. Bainan ez dut sari *herrikoirik* ezagutzen berritze hori saritzen duenik, kritikoek eta idazleek emandako saririk gabeko sariak ezik. Alegia, gure gizaldian izan diren literatura berritze guztiak sari ofizial hauetatik bazterturik gelditu dira erabat, eta Sueziako Akademiak saritu duena, zerbait «egina», «osatua», mundu guztiak onartu duena izan da.

Kasu batzuk aztertzeko, Beckett oso berria iduritu zitzaigun bere garaian, bainan aitzindari zituen Adamov, Jarry, Ionesco eta beste zenbait. Antzerkian hau, nobelagintzan Joyce bai zuen aitzindari eta maisu. Asturias-ekin ere gauza bera gertatzen zaigu. Marquez ere Nobel-erako proposatu omen dute bainan bien aitzindari dugun Borges, egungo idazlerik bikainena, Kafka, Joyce eta Proust-ekin batera gure gizaldiko literaturaren habe gelditzen zaiguna, ahaztu dute. 98 belaunaldiko inor ez zuten saritu, Benavente saritzen zuten bitartean. Jimenez-erekin ere berdin gertatu zen. Eroetxeei buruzkoa nagusi.

Nobel sariak ez du benetako eginkizun literario bat betetzen. Politiko dela? Benetako eginkizun literarioa ere eginkizun politiko bilakatzen da. Idazlea *neutrala* denean da idazle politiko (1). Ez dut uste neutralidade hitzak egunero erabiltzen dugun hitzaren zentzu berdinik duenik. Ze, idazlea egoera batean finkatuta da neutral eta egoera hartatik erantzuten du. Derrigorrez. Bestela, idazlearen eginkizuna eszeptizismoaren panfletatzea litzake.

Bainan Nobel saria politiko dela esaten dudanean, neutralidadea falta zaiolako esaten dut. Ezin ahaztu duguna: Suezia nazio bat dela, bere arazo gogorrak dituela eta dena nahasten dela: Literatura, politiko egoera eta estrateji jakin bat. Halare, herri xeheak adore haundia (hain haundia ote?) ematen dio Nobel sariari eta ez dut uste eman behar ez zaionik. Pentsatzen dudana, ez datorrela inoiz gaizki zenbait gauza-jakin noiz behinka gogoratzea.

Anjel Lertxundi

(1) Carta de batalla por «Tirant lo Blanc». Mario Vargas Llosa. Revista de Occidente, 1969.ko ilbeltza, 70 zenbakia.



«Beldurtu egin nintzen lehendabiziko txanpona nere txapelan erori zenean: 10 zentimoko bat zen, zigarroarekin plast! eta ertzeraegi baztertu zuen. Ongi jarri nuen berriro eta kantari jarraitu nuen».

Heinrich Böll

EUSKALDUN EMAKUMEA

Erreran, etxe bateko zereginak egiteko emakume euskaldun bat naiko litzake. Argitasun edo informaziorik nai duenak, Zeruko Argiara deitu beza. Urrut. 426666.

ERLOJU ETA BITXITEGIA
Eduardo Chopeitia
Getaria, 10-Urrut. 417751-Etxekoa: 422700 - DONOSTIA

YOGUR
GURELESA
GOGOZKOENA

(c) Ministerio de Cultura 2005

BILBAO



IRUIÑE

PASAI DONIBANE

andoain

Orantza, mendizaleen biltokia alegia, berritzen ari dira: biltokia diot. Giroa ere berritu nahi luketela, diote gazteek: hasieran oinarri ziren asmo on eta egoki haiek berpiztu nahi lituzketela. Izan ere azken alde honetan hilik zegoen: hilik eta zorrez beterik. Zor hoiek nolabait ordaindu nahi lituzkete eta hor datza koxka: zor hoiek nola arindu? Buruhauste hori buruhaustea da baina erabaki erreza: giro ona sortzen bada, erabaki erreza. Berrehun mila laurlekoko zorra omen da guztia: kopuru haundia edo haundi xamarra, baina denon artean ez ahal dugu osatuko? Baietz diot: baina giroa berpiztu behar lehendabizi: hori da garrantzitsuena, giroa berritzea, Orantza (Legamia) berritzea. Aurrera gazteok!

Herriko-etxean ere zerbait nahaspildurik dabilela entzun dut: bilera nagusietara, udalkideetatik inor gutxi azaltzen dala eta abar. Ez da harritzekoa! Lanerako gogoarekin joaten diranei, hor goien gogoak kentzen dizkiela entzun dut: betikoa! Herri luzea batetik, traketsa bestetik eta barruko gizartea nahaspildua: ezagutzen arras zaila, nahiko iroitua. Guda aurretik nolabait biltzen ginen baina orain bildu ezinik gabiltza. Ia Orantzan gazteekin nahasirik, zahartxegoak biltzen hasten garen: hasi eta jarrai. Muxin egitea azkenekoa da: bultzakada, aurrerakada eman behar zaie. Gaurko bildu eza, gaurko gazteekin bildu nahi eza, gaurko gizartean, berritzeko asmoekin murgildu nahi eza, hamar urte barru edo lehen nozituko dugu. Andoainen, Euskal-herriaren alde lan egin dutenak, Euskal-gizartearen alde lan egin dutenak aunitz dira: gazteen artean lan egiteko gogoa dutenak baitere eta danon artean, elkarri lagundurik, gure herria ez ote dugu giroz aldatuko? Ez ote dugu berpiztuko? Ikastetxeak direla, Ikastola dela, Peña Santa Cruz dela, Zumeatarra dela, Larramendikoak direla, Ontza dela, Padres de Familia direla, Gazteleku dela eta abar ta abar... Guztiok bat egin dezagun.

Helburua? Jomuga? Andoain lo zorrotik esnaraztea, aurrera jauzi haundi bat egitea, giroa hobetzea, gizarteari eragitea: balioko duan zerbait egitea. Eta hontara denok behartuak gaude, bai ludi hontako bizilagun bezala eta bai kristau bezala.

Ta horretan saiatzen ez denak, gure artean bizitzeko eskubiderik ez du: denok zertxobait egin genezake. Andoaingo pazian sarturik bizi garenok aurrera!

TALDEKO-BINGEN

pasai donibane

IKASTOLA

Joan den hilean, ikastolako gurasoek, batzarre interesgarria izan zuten. Nahiz-eta ikastolako umeen guraso guztiei dei egin, ez ziren denak azaldu. Hala eta guztiz ere, gehienak han bildu ziren, talde ugaria osatuaz.

Etorri ez zirenen artean, benetako arrazoiak izan zituzten batzuek; beste batzuen "arrazoi" bakarra berriz hauxe da: axolakabekerian eta lo-zorroan murgildu-ta bizi direla. Noiz esnatuko ote dira arranoa!!

Goazen batzarrearen harira.

Aurrez-aurre behar dugu esan, batzarre guzia euskeraz egin zela; baina, bildu zirenen artean, batzuek euskeraz ez zekitenez, espainolera itzulikatu edo traduzitua izan zela. Izan ere, farregarria deritzagu, bai ikastolako bileretan, bai batzorde edo direktiba batzuetan egiten denari: gurasoek beren umeak EUSKAL ikastolara bidali eta beroiek ESPAINOLEZ hitzegin. Joko maltzurra gure semeekin!! Eta jakina, oso urruti ez dagoen egunean arpegira botako digute gure seme hauek: "Faltsokerian ari zerate"!!

Anton Artamendi Jauna, hizkuntzaren garrantziaz edo inportantziaz mintzatu zitzaigun. "Euskera, ez dugu museoko kutxa batean jartzeko, geure ideiak, pentsamoldeak eta abar azaltzeko baizik", zion.

Azkenez, ikastolako batzordea edo direktiba osatzen dutenek, argi eta garbi hauxe eskatu zuten: "ZATOZTE ikastolaren alde lanegitera". Beroiek nahiko urte igaro dutenez eta "juntxo" izateko arriskua ikusiaz, txanda edo erreleboa eskatzen dutela. Argiago...

MENDIZ-MENDI

Egun batzuk direla, aspaldiko partez, "Miradore"-tik, S. Ana baseliza igaro-eta, Borda-Haundi baserriraino (garai bateko baserria!) joan ginen. Izan ere, Herriko-Etxa mendiko zenbait bide txukuntzen eta berritzen ari bait da. Kanposantura doan bidea ere, txanda etorri zaionean, txoil konpondu digute.

Har bezate bada gure zorionik beroena Udaletxeko gizonak eta jarrai dezatela herriaren zerbitzuan!!

—oOo—

Kaikukeria galanta lehengo astean, radiotik entzun genduena. Hamabi urteko mutiko kirolzale bati, hauxe galdetu zioten: "Eta... UNIBERTSIDADEKO zer KARRERA aukeratuko zenduke haunditzean?".

Jakina, horrela galdetu-eta, badirudi edozeinek ikas dezakeala karrera bat. Eta egia trixtea bestea da, hots, gehien-gehienok ezin izan dugula estudiatu "Unibertsidadeko karrera".

Ozta-ozta (eta semeak neurtuaz. "Parejatxoa" eta kitto) Gipuzkoan ditugun: Perito, E.S.T.E. eta horrelakoak estudia ditzakegu eta hortik aparte oso gutxi.

Eta norbaitek bere kolkorako baldin badio "hemen ondo bizi gaituk eta gaurregun oportunidade berdinak dizkiagu", etor dedilla guregana edo geure alboan dagoenarengana eta geure soldatako txanponak trukatuko ditugu.

Iñalurretak

mutriko

BATAIOAK

Urriaren 29an, Eleiz-Nagusian bataiatu ziranak. Imanol Urreizti Ulazia; Angel Jose Galarraga Belarbide; Esther Urreizti Pazos; Mikel Arrizabalaga Lezertua eta Jose Antonio Azumendi Arrieta. Zorionak aurtxoen guraso eta senide guziei.

EZBEARRAK

Debako «Industrias Deva» lantegian, makiña garbitzen ari zalarik uste-ustegabeko zoritxarra izan zun Manuel Elezgarai langilleak, oker bidez makiñak besoa erdibiturik. Ori zorigaitza! Leenbiziko osabideak egin bezin laister Donostiko PAKEA sendategira eraman bearra izan zen.

Ondarrutik Mutrikuratzean, Arrigorri inguruan, kamioi batek jo ta jaurti zuen Iñasio Pagoaga, «Arantzamendi» baserriko mutilla. Zearo mazpildurik eta eskuiko besoa ingur-ingurretik ateriaz jaso zuten, eta berealako batean Donostiaratu zuten. Aspaldi ontan badugu naiko zauridun ta elbarririk. Leen bai leen sendatzea opa diegu.

SENDATUTA

Donostiako sendaetxean luzaroan gaxo egon ondoren, sendaturik etxeratu da Petra Ugartetxea, gure adiskide eta Z. ARGIAko arpide zintzoa. Ongi etorri.

EUSKAL ALFABETATZEA

JAUJA-ko Euskal Alfabetaze batzordekoak eratuta, egun auetako batean asiera emango zaio Euskera Batuaren alfabetatze kanpainari. Ortarako, egunak eta orduak, urrengo argitaraldian azalduko dugu. Euskera Batuaz gertu nai duten erritar guziek, aurrez eman bitzate beren izen-deiturak JAUJAko euskal alfabetatze batzordean. Orra or, aukera ederra euskera batua, errex eta ondo ikasteko.

APAIZ LANGILLE ETA GIZON

Idazten ari geran une ontan, antzerki taldekoak jo ta ke ari dira azken-saioak egiten. Antzerkia il onen zazpian izanik, lan au argitaratzerako antzeztua egongo da; beraz antzezkizun onen azalpenak argi eta garbi, pozik argitaratuko ditugu.

LAU

zumarraga

LEGAZPI. LA SALLE

Poz-pozik jaso eta arreta aundiz irakurri degu, gure ikasle trebeek argitaratzen duten aldizkari bizkor au.

Gure lumari baldar dela derizkiogu, gazte trebe auek aldizkari trebe onen bidez adierazten dutena edatzeko. Aldizkari ontako idazle trebe eta argiei bideak urratzea dela, derizkiot.

Alere aldizkari onen azken orri aldean arkitzen det gaia zerba-it anaiki, masiatzeko. Ez da, nolanaikoa gazte bulartsu auek beren barruan daukaten su garra lan egoki eta gizartearen onerako diren ekintzari buru emateko.

Zalantzarik gabe esango degu udako opor egunak gure mendietako aize osasuntsuarekin bat egiñik berpiztu dituela gazteria onen kemenak.

Eskuetan daukagun 20garren aldizkari onen azken orri aldean adierazten dute argi eta garbi beren ardura, adieraziaz ikastaroarekin batera asiko direla beren asmo sendo eta lanetan (Martes Cultural) elkar-meza, kirolak eta abar.

Une ontan jautsi da gure eskuetara idatzi agiria (Martes Cultural) delakoaren eratzailleak argitaratua, onela dio:

(MARTES CULTUAL) delakoak (ATENEO POPULAR) delakoarekin bat, eratu dituzte itzaldi sakon batzuk, familia eta Aurren ezierari buruz.

Zer esanik ez dago gai oni buruz izlari trebeak deituak izan direla.

Urriaren 24ean izango da itzaldien asiera, eta abenduaren bostean amaia.

Gurasook, astearte oroz badakizute nun arkitzen den eser leku berezi bat zuen zai. La Sailletarren areto epelean, arratseko zortzietan.

Joan den urteko ikastaroa bukatzean martes cultural delakoaren maitale batzuk aurkeztu ziran idazle onengana adieraziaz beren jardunaren arian, egoki arkitzen zituztela delako elkarte onen lanak, baiña egokiago izango zela ekintza ontako gidariekin batera, gurasoei buruz itzaldi batzuk eratzea. Guraso auen naia beteaz, Zeruko argiaren bidez guk, argitaratu genduen beren naia; norbaitek jaso du tantoa, eta gurasoen naia egitaratu.

Eskerrik asko.

AZKARRAGA

azpeitia

AITA PLAZIDO MUXIKA

Nork ez du ezagutzen Muxika jaun prestu eta langilea? Agian, personaz ez da askorik ezagutzen Muxika jauna; batez ere gazteon mailan. Baina haren hiztegi mardul eta trinkoa ezagutzeke dagoen euskaltzale kezkatu asko ez da izango gaurko egunean.

Lehengo larunbat arratsaldez, nere lagun bat eta biok joan gintzaizkion bere gelara. Badakit aspaldidanik, Muxika jaunari ez zaiola gustatzen denbora alferrik xahutzerik; baina oraingo honetan, geu ere ongi prestaturik goazkio: berak eginiko ehun liburu erostera alajaina! Bai ahal da aitzeki hoberik inoren ate ondora hurbiltzeko?

Aita Muxika asko poztu zen bere liburu eta lanen berri jabeturik geundela ikusirik zatozte pasa aurrera, ez zaituet ezagutzen. Gazte gutxi ezagutzen dut, izan ere inongo batzar eta hitzaldietara ez naiz heltzen.

Horrelaxe beste protokolorik gabe hartu gintuen Muxikak. Gu, bere gelan sartu orduko hasi gintzaizkien bazterrei erreparatzen. Kajoi mordo haudia, bata bestearen gainean kxukun tolestaturik, ez dakit zenbat mila txartel-fitxa omen zeuden. Muxikak, Santa Krutz apaizaren gurutzea eta bizpahiru argazki atera zizkigun, ikus genitzan. Bai pozik ikusi ere! Santa Krutz gudari bizarluzea zaldi gainean zegoen, bazirudien Lizarraga uxatzeko prestatzen ari zela. Aita Muxikak ba omen daki non dagoen Santa Krutzen biografia bat, oraindik argitara gabea. Aitzolek egina ote? Ez zigun argitasun gehiagorik eman nahi izan; baina guk arren argitara zerala eskatu genion.

Muxikak bere aldetik beste erregu bat egin zigun. Alegia lehengo ERDAL-euskerazko hiztegiaz zortzi mila aleko edizionea egin omen zuen, eta oraingo hiztegi berri honetaz ere ahal duen edizione ugariena eginnahi lukeela. Txartel mordosko bat eman zigun lagunarteetan bana genitzan erregutuaz.

Gure aldetik eginik dugu txartel banaketa, eta irakurleak Zeruko Argiaren bidez aita Muxikak egiten duen eske eta baldintzen berri, jakin ahal izan du.

JOSE ARTETXE

Azpeitiko Aurrezki Kutxa Munizipalak, Jose Artetxe idazle ospetsuari, omenaldi eder bat egin dio, haren hil-urtebetetze ingurua dela ta. Artetxek idatziriko liburuez (tartean bere argazkiak zirela) eta I. Elias eta L. Etxeberriak egindako bertso, poema eta biografiaz hornitu zuten Aurrezki Kutxako eraiki behar omen dute. Halabeta denda xarmanta. Herriak gogotik ikusi eta irrakurriak ditu Artetxeren oroigarriak.

Gure aldetik jakin ahal izan dugu, datorren urtean, hain zuzen Sansebastianetan herriko Udalak eraturiko gorazarre bikain bat egingo zaiola Artetxeri. Bere irudia, gaur Zelailuze deritzon tokian hemendik aurreruntz alderdi hari "Jose Artetxe" karrika deituko omen zaio.

Egia esan izen aldaketaok ez zaizkigu gehiegi gustatzen. Alderdi hari, egun ofizialki, "Paseo de los Fueros" deritzaiola oso gutxik daki. Herriak beti Zelailuze deitu eta deitzen dio; orain Jose Artetxe zergatik? Ez ahal da hobe izen berriak karrika berriei ezartzea?

Artetxeren kasuan berriz bi arazo ikusten ditut.

Bata. Gure idazle handiaren izena zergatike ez zaio hortaz Artetxe bera jaio eta bizitu zen kale berari ipintzen?

Bestea. Ohar gaitezen, Artetxe kultur gizona zen batipat; beraz zergatik ez da bere ohorez, haren izenez deituko den liburutegi bat antolatzen? Gaurko Herri-liburutegian Artetxeren libururik ez da ikusten. Ona litzake beraz Azpeitiko kultura ikuspegitik Artetxeren arazoa aztertzea.

Dena dela guzti honekin, gure zorionik beroenak merezi dituzte Aurrezki Kutxako jaunek. Ihauterietan, Sansebastianetan, Saninazioetan, garaian garaiko gaiei loturik ekintza txalogarriok eskaini dizkigu, eta aurreruntz ere hildo berei jarraitzeko asmotan direla aitortu digute. Aurrera jaunak!

HARRIJASOTZAILEAK

Ez beldurtu irakurle, Basarri jaunak hain bereak dituen gaiak ez dizkiot lapurtu nahi, baina tira! Zilegi bekit, azpeitiarra naizenez gero herriko apustuei buruz hitz bi egitea.

Azpetia betidanik da apustu giroko herria, eta azkenaldiotan Euskal-Herriko joko-habi bihurtu zaigu gure zezen-plaza.

Apustu egunetan diru-jokalariak enparantzara iritxi baino lehenago, kalean bertan hasten dira oihuka. "Ehun duro txikiaren alde, larogeita-hamar ezetz".

Apustuotan euskal-basakutsua nabaritzen da gure kaleetan, hantxe bai oraindik erdarak muturrik ez duela sartu arraioa!

Ostolaza eta Mendizabal neurtu ziren Urriaren 22an. Harrijasotzaileok ikusten, baserritarrak ez ezik kaletarrok ere ugari ginan, eta bi jokalarien artean nabaritu zen aldea ikusirik Mendizabalek berak eman gainea lau jasoaldiren bentaja) Simon "matraza" zenaren esaera zetorkidan gogora. "Txaketa erantzirik jokoa egin eta txaketa jantzirik jokatu" Horixe ber-bera egin zuen Ostolaza txiki-haundiak.

ANATSAN

(c) Ministerio de Cultura 2005



ELGOIBAR

BERTERRETX



URNIETA



ZARAUTZ - GETARIA

idiazabal

EUSKAL HERRIKO BERTSOLARI-TXAPELKETA

Azken aldi ontan askoren aotan dabillen gora bera auxe da: Idiazabalgo 11 Zepai saria.

Izan ere merezi duala uste degu, ekintza onek ainbat jardunaldi edo komentario egitea; eta kontuan izanik Idiazabal Gipuzkoako erririk txikienetako bat dala ta era ontako txapelketa bat antolatzeko toki itxi egoki bat ez duala; ez zine, ez pelota leku itxi bat, eta abar, eta abar.

Guziok dakigu toki itxi egoki bat ez izateak zer ondoren dakazkien antolatzalleentzat. Batetik eguraldiaren baitan egon bearra eta bestetik sarrerarik kobratu eziña. Beraz une egokia iruditzen zaigu au, galdera bat egiteko. Noizko degu proiektoak egiña dagoen erriko pelota leku itxia?

Bestetik bururatzen zaigu, egoera ontan, toki egoki bat gabe, mailla ortako ekintza bat antolatzeko ausardia dutenak, zenbait erriren egokierak balituzte, ainbat eta ainbat ekintzari astindu ederrak emateko kapaz lirakeela.

Garbi nabarmendu zan illabete pare bateko lanaren frutua zala bertsolarien azken saio edo finalean adierazten zana, alde batetik, bertsolari, epai maaiko eta antolatzailleak, eta bestetik erriaren egarri eta azalpena. Ez degu uste alako berotasun eta girorik noiz nai arkitzerik dagoenik gure herrietan.

Orduan atera dezakegun ondoren edo konklusio bat auxe izan diteke: Euskal Herrian eta batez ere Goierrin bertsolaritzak baduala etorkizuna, alde batetik bertsolari gazteak indarrean datortzela eta bestetik entzule ugari badutela, gure iritzian biak bear bearrezkoak eta alkarri lotuak joan bear dutenak.

Bertsolari txapelketa batetzaz ainbat mintzatu ezkero, bidezko derizkiogu, ondoren bertso batzuek, entzun al izan etzuanarentzat irakurtzeko bidea jartzea. Azken saioan bertsorik onenaren saria eraman zuan Patxi Iraolaren bertsoak dira oek:

Gaia auxe zuan: Gaur goizean leendabiziko aurra izan dezu, eta orain erakutsi dizutenean konturatu zera aurra mongoliko edo atzeratua dala. Abestu izkiozu iru bertso aurrari.

— 1 —

Ara aurtxo txikia
begira zugana,
zu ziñan aspaldian
desio nuana,
ta bizitza artuaz
gaur zatoz gugana,
bañan ez dakit oso
ote zauden dana,
zer eingoda artu ber
Jainkoak emana.

— 2 —

Maitasunez sortuta
banuen urrean,
bizitza pasa ustez
gozoki lurrean,
zure zai egon gera
era jatorrean,
ta orain ikusirik
aiñ era txarrean,
aurtxo negarrez nago
zedorren aurrean.

— 3 —

Seme zure doaiak
gaizki dabiltzela,
ta nik ez izanikan
aiñ biotz txepela,
mongoliko ikusirik
aurrian onela,
biotzetikan miña
sufritzen detela,
bañan maitatzen zaitut
sano bat bezela.

Zaldibiko Patxi Iraolak entzun zuan txalo ugari bertsook abestean eta gure zorionik beroena berarentzat. Txapeldun Eusebio Igarzabal eta bigarren, Kosme Lizaso.

Bederatzi bertsolariak jator portatu ziran eta beajoaindeizuela guzioi; ia datorren urtean berriz entzuteko eta ikusteko izaten geran.

AXARI

elgoibar

PEDRO MIGUEL URRUZUNOREN OMENALDIA

Pedro Miguel Urruzuno Elgoibarko kale baten deitura besterik ez da elgoibartar askorentzat. Guretzat ere berori da eta zerbait gehiago ere bai. Izen honek gizon baten aitorra egiten digu, Urruzuno euskal idazlearena.

Pedro Miguel Urruzuno Salegi, gurea dugu, elgoibartarrona. Hemen jaio zen 1.844 garren urtean eta hemen (Mendaroko Agustinetako komentuan) hil 1.923 garrenean.

Bere lan guziak ipuinak izan dira. Hiru liburuxkatan eman digu AUSPOAK Urruzunoren ipuinen berri, «Euskal Erritik zerura» «Ur-zale baten ipuinak» eta «Iru ziri».

Hori delata, omenaldi bat egitea da elgoibartar batzuen buruetan dabilen asmoa. Hain xuxen ere, berrogeitamar urte dira gure idazlea hil zela. Omenaldi hau, datorren Urtarrilaren azkenengo astean egitea erabaki da. Programa oraindik gehiegi zehaztu gabe badago ere, honelatsu izango lirateke jaiak: Euskaltzaindiaren bilera bat Elgoibarren, Urruzuno euskaltzaina izan zanez gero; bilera hortan, gaurko euskaltzain batzuk izango ditugu hizlari, Urruzunoren nortasuna agertuaz. Bestalde, hitzaldi mahai inguru, jai-aldi, azoka t. a. izango dira omenaldi honen osagarri.

Gauza hau ondo ikusten dugu eta ontzat ematen. Izango du gure laguntza ere.

ANTTON-ek

bergara

IKASTOLEN ALDE

Irakurleak jakingo du eguneroko aldizkarien bidez, jaialdi bat aukeratu dala gure Ikastolek aurrera jarrai dezaten.

Geu, lotsatu egiten gera Ierro auek jartzean, ainda lotsagarria!

Gure Ikastolek berarekin daramazkien diru bearrak nunbaitetik atera bear dira.

Beste erri batzuetan, bazkideak osatzen dute bearkizun au, bazkideen bidez ordaintzen dira beren kastu guziak. Bergaran gutxi izanez bazkide auek, alako jaialdi batera jo bear zerbait egiterik nai bada.

Datorren asteartea (martitzena) gaueko amarterdietan Irala aretoan GIZAEMAKUMEEN JANTZI ERAKUSKETA.

Taldetan abestuko due Itziar Amenabarek eta Iñaki Unamunok.

Sarrerak ematen du eskubidea zosketan parte artzekoa. Sarrera: salneurri bakarra, 100 pta.

Ez det uste ikusketa au «tostoi» bat izango danik; irakurleak daki nolako maitasunez eta xeetasunez gertatzen diran jaialdi auek, eta... eta... gaiñera Bergarako emakumeak agertuko dira, Bergarako emakemeek egingo dute jantzi guzien erakusketa. Beroiek ikustearren bakarrik ordain ditezke ogei duro.

Etxe auek bialduko dituzte beren erakusgaiak:

Aiastui, Ugalde, Amenabar, Mujika, Boutique Gomez, Maza, Galarreta Oiñetakoak, Lonbide Oiñetakoak, Egizabal Oiñetakoak Retegi Oiñetakoak, Txurruka Etxea eta Artesania YOAR. Sarrerak salgai:

Modas Amenabar
Optica Garagorri
Casa Aranzabal
Calzados Aguirrebeña.

Iralako sarreran andereño talde batek sariak emango ditu doan guziari.

Eriotza.

Il onen bederatzian lur eman zioten Alzerreka eta Bastarrarenatar Arantxa ogetairu urteko neska iaioari.

Bere guraso eta familia guziari, gure samin agurra.

MENDIKOI

pasai anzio

IKASTOLAREN ALDE

Errenteriako ikastolako ORERETA Elkarteak, bertako ikastolaren alde, futbol partidu bat muntatu zuen Urriaren 29ean.

Lantegiz-lantegi, kalez-kale ibiliak izan dira. Nik lanegiten dudan lantegian ere, saltzen ibilia izan da lankide adiskide bat eta nahiz futbol zalea ez izan, erosi nuen.

Baina ,tamalgarria zera da: euskeraren salbazioaren alde ari den elkarte batek, sarrera OSOA erdera HUTSEAN argitaratzea! Nola uler dikete hau? Antolatzaileek ulertuko dute, guk ez!

AURREZKI KUTXAK

Aurrezki Kutxek enpleatu bat behar dutenean, erderazko *aldizkarietan anuntzioak ipintzen dituzte. Eta eskatzen dituzten baldintza edo kondizioen artean, hau izaten da: «conocimientos del euskera» (erderaz, jakiña! Asko jazten bai du!). Baina, «gure» Aurrezki Kutxa «herrikoak» ez du betetzen baldintza hori, zeren nere ama joan izan da A. K. Probinzialera (hemen Antzion) bere alargun-saria jasotzera eta euskeraz mintzatu den bakoitzean «no sé vascuence» erantzunarekin, erderaz mintzatu behar izan du. Noiz arte era hontan?*

HARATEGIA

Harategietan haragia saltzen den bezela, «Mery Club-en» emakumearen haragia eros dezakezu txanpon arbuiagarri baten trukez.

Orain dela zenbait hilabete sortu zen gure herrian «Club» hau.

Agintarien baimenarekin jakina! Gazte elkarteak, Elizak eta herritar gehienok «etxe» honen aurka altxatu ginen, egitera zihoaztela zabaldu zenean. Protesta ugari izan zen, eta ez gure herrian bakarrik, baita bailarako herrietan ere. Alferrik! Dirua dagoen tokian, «legeek» ez dute ezertxo ere balio nunbait.

Club hau, Probintziako Buruzagiaren aginduaz, aldi baterako itxia izan da, 17 urteko neskatila portugaldarra dela-eta. Herriko zurrumurruak (zurrumurruak berriro diot) dionez, «etxe» hortako nagusiak gizonaren zerbitzurako *jarria omen zuten. Baina, aldi labur baterako itxia izan denez, laixter ikusiko dugu «Club» hau lege babesarekin «lanean». Herriko Etxeak (herritarrek ezin dugula ikusi denez), ezin al du harategi hau lurperatu?*

EUSKERA-IKASI

Euskerazko klaseak, igaz bezela, aurten ere hasiak ditugu. K. Munizipalak lehen zituen lekuetan jarduten dira 70 ikasle, 6 irakasleekin. Emakume ezkonduen talde bat ere bada euskeraz ikasi nahiz. Baina, tokiak urri daudenez, harat-hunat dabiltza antolatzaileak leku egoki baten bila. Ekin etsi gabe gazteok!!

ZINE

Zine Club («club» hau ez da goian aipatzen dugun hoietakoa, kasu) taldeak, joan den Urrian, «El Verdugo» deritzan filma edo pelikula eskeini zigun. Elkar-hizketa euskeraz izan zen.

Juan Miguel Uribarren zuzendariaren aldetik, inbitazioa jaso genduen; baina, ezina izan zitzaigun azaltzea. Dena dela, urrengo batean adieraziko dugu nolako giroa izan zen.

JAIZKIBEL

Irakurleak mintzo

EGUNEROKO NOIZ?

Oso atsegin zait zuen aldizkari hau eta ahal dudan guztian irakurtzen dut, baina sarritan saltokia urruti gelditzen zaidalako eta neu alfer samarra naizelako ez dut erosten eta irakurri gabe gelditzen naiz. Hau gehiago gerta ez dedin, arpidedun izan nahi nuke.

Galderatxo bat egin nahi nizueke. Asteroko hau eguneroko bihurtzerik ba al dago, lehentxeago edo geroxeago hori egiteko asmorik ba al duzue? Hori lortzeko eragozpenik handienak zein dira zuen iritziz? Galderatxo bat egin nahi nuen baina asko irten zaizkit.

Zuen berriak laister izango ditudalakoan eta gure aldizkari hau gure etxean lehenbailehen ikusiko dugun itxaropenean, agur eta nahi duzuen arte.

(Zarautz)
S. U.

500 GARREN ALEAZ

ZERUKO ARGIAren bostehungarren aleaz zerbait esatera natorkizue.

Beste gauza asko bazuen ere, ale hori «Txillardegiren artikulu harena» bezala geratuko dela esango nuke. Eta begira zer alde aurkitzen dizkiodan esandako lan hori agertu izanari:

Batetik ederra da horrelako kritika zorrotza euskaldunok patxadan irakurri ahal izatea. Ene ustez argia baiño argiago dago Txillardegik sutan zegoelarik egiñiko kritika dela eta bidezko da hau ere guk orain lasai-lasai esan ahal izatea. Kritikaren kritika egin ahal izatea, alegia.

Bestetik, Txillardegiren lan horrek iñori kalterik egin badio, bere buruari da. Ez Orixeri, ezta euskal literaturari ere. Izan ere, Orixe gero eta obeki ezagutzea gauza ona da eta hortarako bide bat eskeiñi digu egilleak. Orixeren bizi-giroa nabarmen agertu da eta idazle bat ezagutzeko beharrezkoa zaigu bere ingurua ere ezagutzea.

Zergatik diodan Txillardegi bere buruaren kaltetan jardun dela? Norbaiten kritika egiterakoan, objetibidade apurren bat nahi bada behintzat, Txillardegi Orixerengandik dagoen baiño askeago, libreago izan behar delako.

Bostehungarren ale horretan, bistan da, iñor baiño askeago ZERUKO ARGIA bera izan dela. Ez dirudi ez zorrik, ez beldurrik, ez iñongo indarkeriarik zedukanik. Gaia aukeratu, idazleak lanean jarri —idazle mordoa— eta idatzirikoak azaldu egin du. Aldizkari bat egitea ez baita «horrelakoen» edo «beste horrelakoen» nahia egitea.

Utz zaidazue hauxe eransten: Joxe Mari Aranalde azaldu dela gizon, Txillardegiri erantzutean. Norbaitek mintzeko eskubiderik bazuen, bera zen eta bere erantzunak ez dario behazun ttanttorik. Har beza lerro hauetatik nere esker ona eman digun ikasbideagatik.

Joxe Gabilondo
(Donostia)

(c) Ministerio de Cultura 2005



Zumarraga



Oñati



Orexa

ataun

IPUIN ZAHARRA

Ipuin hau Ataunen gertatua dela diote; zuei ezagutaraztea komeni dela uste dut. Bestalde, zera aitortu beharrean aurkitzen naiz: hots, ipuin hau lehen ere argitaratu zela. Nik egin dudana, Jose Migel Barandiaran jaun prestuari entzun eta hemen idaztea bakarrik izan da.

TXALIN ERROTAKOA

Agerre inguruan bazen "Txalin" zeritzan txakurra bizi zen errota bat. Limurita harpe inguruan berriz, bere bizilekua azeri batek zuen egina. Gain hartatik, Agerreko oiloak ikusten zituen eta haiek jatera gustora joanen zitzakean bidean Txalinekin elkartu beharrik izan ez balu.

Behin, gose handia zuela eta beheko arboladi batetara jaitxi zen eta hara non topatzen duen zozo bat kantari. Zozoa horren pozik zegoela ikusirik, azeriak hotsegin zion:

—Zer gertatzen zaik horren pozik egoteko?

—Zera! Lau ume zeduzkat habian.

—Horixe gauza politta! Bota zaidak bat zelakoa den ikus dezadan.

—Ez, ez, ezta pentsatu ere!

—Ematen ez baldin badidak, zuhaitza hankaz gora botako diat.

Horrela, lokaztegira joanik, azeriaz isata buztinez bete zuen. Gero, joan zen zozoarengana eta isatsaz zuhaitza iharrausiz zera esan zion:

—Ikusten ahal duk? Ari nauk, ari nauk arbola botatzen. Ez ahal dituk ezpalak ikusten? (hori, ezpalen kontu hori, buztin zipriztinengatik esan zion).

Orduan zozoak sinetsi eta, ume bat jaurti zion eta azeriak berehala irentsi zuen. Hori ikusirik, azeriak esan zion:

—Bota zaizkidak beste hirurak ere, bestela, zuhaitza ebakiko diat.

Zozoak hori, guzti hori entzunda ere, ez zizkion hiru umeak bota. Eta azeriak, lehen egin zuena berriro egin zuen: arbola botatzen hasi. Hori ikusita, zozoak beste hirurak ere bota egin zizkion, eta azeriak, jakina, denak jan zituen.

Orduan zozoa ilun geratu zen: ez zuen kantatzen. Zozoari zerbait gertatzen zitzaiola, Txalin iaioa konturatu egin zen, eta hor doa zozoarengana. Beroni zer gertatzen zitzaion galdeturik azeriak iseka egin ziola kontatu zion zozoak. Txalinek hau esan zion zozoari:

—Ni etzanda jarriko nauk eta hi has hadi kantatzen eta azaria inguratzen baldin bazaik, esaiok ni hilik natzala.

Horiek horrela, Txalin etzanda eta zozoa kantari zeudelarik, hor dator azeria zozoari galdezka:

—Zer gertatzen zaik?

—Txalin hil duk.

—Txalin?

—Bai, Txalin; Txalin bizkorra!

—Neri asko sofrierazi zidanez gero, orain iseka egin behar zioat.

Txalinen gainera joan eta azeriak pixa egin zion. Orduan, Txalin txakur bizia altxatu eta azeria azpian harrapaturik, hil egin zuen. Horrelaxe galdu zen Limurita inguruko piztia.

"Dena nahi duenak, dena galtzen du".

TRIKUARRIETA

tolosa

Nik ez dakit baina, ia ziur nago, tolosar gehienek ez dakitela, Udaletxeak, Ikastola bat baduela. Orain dela bizpahiru urte ireki zen eta behar bada garai hartan zedozer gehiago entzungo zen herrian, bainan geroztik bederen, ez da inon ezer entzuten. Badirudi ikastola hori ez dela gurea. Edo, zer esan?

Bada aspalditik gutartean ohitura lege bat, «barruan» ez egoteko; hau alde batetik gaizki ikusia dago, eta bestetik nahi eta ere ezer handirik egiteko aukerarik ez ote dagon susmo bat ere bai.

Dena dela «barruan» ez dagoenak kanpoan aritu behar luke, baina hau ere ez dugu nabaritzen. Bestalde barrutik lan asko eta asko egin leikeela usten dugu, ikus Errenteria, Usurbil, Elgoibar eta beste askotako udaletxeak exenplo bezala.

Edozer modutara eta lehengo harriari jarraituz, gurean ere gauza bat ona egin zen. Garai hartan Udaletxe batek ikastola bat irekitzia ez zen guti eta besterentzako exenplo bezala zer esanik ez.

Baina zer gertatu da? Entzun udaletxeko gizon batzuei egindako galderetan zer erantzun jaso ditugun.

—Udaletxeak egin zuen ikastola bat noski eta nola doan edo jakin nahirik gatoz. Zer diozue?

—Ikastolak jarraitzen du; baina egia esan dagon lekuan ez dago toki gehiegirik eta ezin dugu ez hazi eta ezer gehiagorik egin ahal.

—Zenbat haur dabiltza denetara?

—Ba azken berririk ez dut baina larogei aspaldi pasiak ziren. Eta nire ustez horretan jarraituko du noski.

—Zenbat andereño daduzkazue haur hoien heziketarako?

—Ba, uste dut bakarra izanen dela.

—Ez ahal da guti izanen andereño bakarra hainbeste haurrentzako?

—Bai behar bada bai, baina...

—Eta horrelako iniziatiba on batek ez ahal du merezi harrera hoberik?

—Ba bai, arrazoia duzu baino gauden lekuan eskuak loturik daduzkagu; eta orain gure itxaropena da, estaduak emango dizkigun parbulario berrietatik erdiak gutienik ikastola gisa ipintzea.

—Zenbat parbulario izanen dira berri hauek?

—Hamar-hamabiren bat izanen dira.

—Horretara bost edo sei euskerazkoak, ez?

—Gurea asmoa hori da behintzat.

—Eta irakaslerik ba ahal duzue?

—Ba... ez, oraindik ez dugu ezer egin; baina, pentsatzen dugunez ez da prolemarik izango.

—Nolaz ba?

—Aldundegiak (Diputazioak) prima edo sari batzuk ipini ditu euskeraz ikasten duten maisu-maistra denentzat.

—A! Eta harrera ona izan ahal du maisuen artean ideia honek?

—Ba asko ez dakigu, baino jakin dugunez badira bakarren batzuk ikasketak egiten.

—Beno ongi da eta jarrai aurrera eta ia lortzen dituzuen zeuen helburuak.

Horrekin bukatu genduen gure elkarrizketa. Eta egia esan gu ez ginan hain baikor (optimista), beraiek azaltzen ziren bezain beste bederen.

Ongi aztertu ondoren elkarrizketa hau ondorio batzutara garamazki 1) Udaletxeko ikastolaren arduradunik ez dagola konzejalen artean. 2) Guri emandako erantzunak ez zutela izan, hala uste dugu, behar hainbat ziurtasun edo tinkotasun. 3) Maisu euskaldun berri hoiek ez direla izango gai euskeraz irakasteko. 4) Herriak ez duela jaramonik egiten berea den ikastola honetaz. 5) Borondate ona nahiz azaldurik, ez dugula berotasun eta ez euskaltasun gehiegi arkitu gure udal-gizonetan.

Nik uste dut arazo honek merezi duela harreta apur batekin hartzea, eta ez litzake gaizki egonen, herritarren aldetik, Udaletxeko batzarretara azaltzea talde batzuk. Eta bertatik bultza eta kezkarazi barruan dauden gizon hoei.

Alegia oroitarazi behin eta berriz euskalerriko Udaletxe baten barruan daudela, eta geure prolemak geureak egin behar ditugula; eta hauek goitik hasita noski.

Urrengo baten emanen dugu zenbait argibide arazo honetaz.

ASKALEKU

gasteiz

HITZALDIAK

Azaroaren 8-an, asteazkenez, Charritton jaunak. Arratsaldeko 8-etan.

Azaroaren 9-an, ostegunez, Andiazabal jaunak. Arratsaldeko 9-etan.

Azaroaren 11-an, larunbatez, Kanblong jaunak. Arratsaldeko 6-tan.

Gaiak: Iparraldeko kultura, erlijioa eta ekonomia.

—Hitzaldiak euskeraz izango dira, erderaz laburpentto batzuek emanaz.

—Aretoa, lokala:
Residencia
Madres Reparadoras
San Antonio karrika
Gasteiz

JOSE ZINKUNEGI'REN
OPTICA BERRIA DONOSTIAN
URTIETAN LAN OIETAN OITUA
BARRUAN DANAK EUSKALDUNAK
Hernani, 4 DONOSTIA

CAJA LABORAL POPULAR
(LANKIDEEN AUZO-AURREZKI ONTZIA)
— DIRU - PRESTAKETA ELKARTEA —
Aurrezki kutxa onen laguntzak: — gizarte-saillean
— diruketa-saillean
— lantegi-zuzendaritza saillean
ZUK AURRERATUTAKO DIRUAREN BIDEZ, LANGILLE ASKORI, BERE LAN-SARI PREMITIK IRTETZEKO BIDEA SORTUKO DIEGU
Laguntza ezin obeak, etekin eta irabazirik aundienak eta illeroko sari ederrak eskeintzen ditugu
Gure landolak erri auetan idikiak dauzkagu:

Mondragoi	Zumarraga	Bilbo	Ermua	Munguia
Aretxabaleta	Elgoibar	Legazpia	Eskoriaza	Yurre
Elorrio	Markiña	Irun	Izarra	Bermeo
Barakaldo	Bergara	Durango	Ondarrabia	Lasarte
Ondarroa	Altsasua	Amorebieta	Galtzaraborda	Enenderian
Andoain	Eibar	Azpeitia	Lekeitio	Santurce
Plazentzi -Soraluze-	Tolosa	Ernani	Llodio	Zumaya
Oñati	Pasai San Pedro	Zarautz	Recaldeberri	Donostia
Ormaiztegi	Errenderi	Sestao	Agurain	Iruña
Beasain	Billabona	Ordizia	San Andres	Deba
Gernika	Gazteiz	Antiguo -Donostian-	Azkoitia	Anzuola

LA CASA DEL CAFE
Juan Friondo
San Marzial, 19 - Urrut. 413801
Donostia

(c) Ministerio de Cultura 2005

ELIZAREN BERRI

Frantziako (eta Ipar Euskal Herriko) gotzaiak Lourdesen.

FRANTZIAKO GOTZAI--BATZAR NAGUSIA LURDESEN

Azkeneko zanbakian esaten genduenez, Frantziako gotzaiak Lurdesen bildu dira Batzar Osoan. Oraino ez dugu ezagutzen bozketatik ateratako txosten osorik; Matagrin Grenobleko gotzaiak "Politika. Fedea eta Eliza" txostena aurkeztuaz egin duen azalpenen bat eta Le Monde egunkariak argitara eman duen txosten horren beraren zatitxo bat bakarrik.

Honela zioen Matagrin-ek, gaur, giza-arazo guztiak politika mailan egosten eta oretzen direla esanda gero ideolojia ateoak nagusi diren mundu sekulartuan, gerta diteke, politika handiestean, bizitzari azken zentzua emateko hainakoa dela uste izanaz aritzea. Eta Olivier Clément, teologo ortodoxoa aipatzen du: "Politika, herriarena ez bada ere, Jainkoa bilatu eta jainko bila diharduen gazteri baten edo intelligentsia baten opioa da".

Zenbaitek, ongi entzunen du hori guztia; orain arte, halabaina, errua, alderdi horretatik baino gehiago beste alderditik dagoela esanen nuke. Eta honelatsu jarraitzen du aipaturiko gotzaiak: "kristaua ez da hitzgabea"; fedeak hau azaltzen du, hots, "gizakiaren erabateko etorkizuna Jesukristo dela"; "kristaua ez diteke koka kondairaren bukaeran, balkoi batetik begira bezala, handik gizadiaren bidea begiemateko bezala. Baizik, kristauaren bidea iluna da". Eta honela jarraitzen du: "Halaz guztiz, zuzenbidea osatzeko lanbidean maitasuna bereiz ezinekoa delarik, maitasun horrek gizakiak buruz--buru ipintzera daramatzi, eta burrukara ere bai Mundu guztia maite dela-ta, inor ez dela atsekaberazi nahi-ta, zapalketaren aurka ez iharduteak okerbidearen maitasuna adieraziko luke".

Pluralismoaz diotena (hau, ia, Batzarrak onarturiko txostenetik hartua dut) hori guztia kontuan edukiaz hartu behar da.

Lehendabizi, hau darakarte mahain gainera: katoliko frantzesak politika mailan banaturik dabiltzala. Gertaera horren aurrean, jarraitzen dute gotzaiek, zenbait jende atsekabetu eginen da, beste zenbait poztu, politika-bizitza giza-banakoaren mailako arazoa dela esanez. Iritzi horri buruz, kristaudiaren hasieran arazoa ez zela horrela hartzen, hots, politika-bizitza ez zela giza-banakoaren arazo bezala hartzen, baizik kristau guztiek oinarrizko zenbait baldintza onartzen zutela, esaten dute gotzaiek.

Berehala, ordea, honela argitzen dute: Elizak ez dituela aukerabide batetara bideratu nahi eliztarrak. Hain zuzen, politika-aukerabidean, kristaua ez du determinatzen fedeak soilki, baizik-eta beste elementu askok parte hartzen du: jatorri desberdinak, hainbat baldintzapenek (klase-mailek esate batetarako, e.a.

Eskubide osoa du bakoitzak nor bere aldetik jotzeko politika aukerabidean.

Sesio-giroko bizibide horretan, giza-prestutasunak, elkar madarikatuaz ez, baina elkarren errespetoz bizitzea eskatzen du. Guztiak, izan ere, desberdintasun horien gainetik, gizatasunean bat dira. Jatorri horretan oinarritzen da pluralismoa. Inor ez diteke bazter eman gizadiarekiko zeregin horretan.

Inork ez dezake esan, hain zuzen, berea dela irtenbide bakarra eta osoa. Erlatibismoa, beraz. Horregatik, benetako pluralismoak, bi jarrera hauek eskatzen ditu: batetik, nork bere burua konprometitzea; bestetik, apaltasuna.

Zer egin Eliza mailan sesio-maila hori gainditzeko? (Esan dezagun geure aldetik, gotzaiek Frantziako ingurumaria dadukatela kontutan; gurea berdina ez delakoa, bistan dago, eta horrez gero, Frantziarako proposatzen duten bidea hemen zertaraino den posible, geurok ikusi beharko). Gotzaiek, kristauen arteko batzarrak proposatzen dituzte, elkarren artean diskutitu ahal izateko. Bestalde, Eukaristia joan-etorri handiko gauzatzat hartzen dute. (Jakina, horrekin, Eukaristia bizi bat suposatzen dute: Hirutasun txit Sainduaz lau hitz esanda konformatzen ez dena, Eukaristiara doazenen bizi-giroa, arazoak, prolemak kontutan hartzen dituena). Ez dute onartzen gero eta zabalagotzen ari den iritzi hau: politikaz zatiturik daudenen artean Eukaristia batera ospatu ezin delakoa. Arrazoinamendu hau dagite: jakina, zatiketa hori presaka eta zalapartaka Eukaristiaren bitartez gainditu nahi izatea, zatiketa haintzat ez dela hartzen adieraztea izanen litzakeela; baina bestalde fededunak badakiela Eukaristia gauza dela giza-bihotzean eraginik izateko; kristau-batasuna ez ditekeela utz eskatologiazko elkartasunerako arazo bezala.

Halaz guztiz, pasarte batetan, "aginpide totalitarioa iraultzeaz" ere mintzo dira, eta hori, Bibliaren eskakizun bezala.

Azkenik, gotzaiek ez dute errezeta bat eman nahi izan.

Zailena, jakintsuen mailan gertuturiko txosten hori, hain jakintsu ez garenon ahora egokitzea izanen da.

FRANTZIAKO GOTZAIAK APAIZ "ERANTZULEEKIKO" HARREMANETAN, EBOLUZIOBIDEAN

Ezaguna da Frantzian "Echanges et Dialogue" delako apaiz talde erantzulea: beste Eliza tankera bat bilatzen dutenena.

Gotzaiek orain arte aski begiramen gutxi agertu diete. Oraingo honetan, ordea, lau gotzaiek talde horretako batzorde bat elkarrizketara hartu du. Eta badirudi, apaizak aski pozik atera direla.

Gotzaien jarrera asko aldatu da beraiekiko. Izan ere, ondo dakite, talde horrek darabiltzien ideiak apaizen artean (eta laikoen artean) gero eta zabalagotzen ari direla.

Oraino, ordea, apaiz-batzorde hori kexu da, apaiz askok, lanera jo duelako, politikan konprometitu delako, ezkondu egin delako, bere apaiz-lanik egin ezin duelakoz.

Puntu honetan ere noizbait emanen ote dute amor gotzaiek? Ez da ageri zergatik ez luken eman behar pauso hori.

AMUNSA

APAIZAK nundik sortu?

Bi gertaera ditut neure begien aurrean: batetik, apaiz gazte gutxi direla gure artean (eta gutxitzen ari direla urteen poderioz), eta bestetik oraindik denbora gutxi dela, ain betea zegon Seminarioan banaka batzuk besterik ez daudela.

Seminarioa aipatu dut... orretaz mintzatuko bainaiz lantxo onetan.

Iñoiz argi ikusi bada, egun argiago dakusgun gauza zera da: apaizgintza doai bat dela kristau Errian lanean jarduteko. Eta lanean jarduteko doaia eta eskeintza bat bada, berez ez du bizi-bide izan behar. Orregati kapaiz izan aurretik bere bizi-bidea, edo obekiago esan, bere ogibidea behar dute euki.

Apaiz izatearen «debaldetasuna» nabarmenago ager dedin.

Ez dedilla gerta apaizgintza ogibide bihurtzea.

Ez dut esan nahi orrenbestez, ez ditugula behar eguneko ordu guziak Eliz-Instituzioaren lanetan jardungo den jenderik, ez. Eguneko lan osoa orretan betetzen duana bidezkoa da Elizatik biritzea. Baiñan ez dedilla izan bestetako balio ez duelako.

Ogibide au arkitzeak berarekin dakar gizartèari itsatsita bizitzea, eta gizarteko gora-beherak jasa behar izatea.

(Barkatu bezait irakurleak nere lagun apaiz gazte bati gertatua aipatzen ba-dut: Bide berriak urratu nahi eta lan billa joan zen. Gure erriko enpresarrio kristauak lana ukatu ez dio-ba... zergatik? apaiza zalako.)

Onetarako, lehenago esan dugun bizi-molde berri ortarako, ez dute balio gaurdaiño ezagutu ditugun Seminario progresistenak ere.

Gaur egun, beste bide batzuek urratzen asi dira zenbait lekutan, eta baita gure Eliz-Barrutianere.

Apaizak behar dira. Gaurko apaizak behar dira. Gaurko gazteak onartuko duten apaiz izaera bat edo, asko aurkitu behar dira, Kristoren Elizako animatzaille izateko.

Orretarako, lehengoari uko egin behar badiogu, uko egin dizaiogun. Ori dela ta, experientzi bat asi dute aurten Donostian.

Lanean ari diren zenbait gazte, estudiatzen ari diren beste batzuekin batera elkarrekin bizi dira etxe batean. Talde onetan, bi apaiz gazte eta berehala apaiz egingo dan mutil gazte bat bizi dira.

Lehenengoz bere ogibidea arkitu, Adanen seme orok egin duen bezela eta gazte bizitza orretan apaiz izateko asmoa sendotu.

Neure iritziz, experientzi interesgarria dugu, pentsamenduz irikia eta zenbait gazteren apaiz izateko asmoa ondo eltzeko bizi-moldea.

Experientzi interesgarria dela esan dut. «Gaur eta emen» artu zezaketen soluziorik interesgarriena.

Bestalde, apaiz izatearen illuntasunak ez du ortik argi aundirik artuko. Kristau talde konkretoen magaletik sortzen ez dan apaiza beti apaiz «volantea» izango da. Behin eta berriz batetik bestera aldatzen diren zuhaitzen tankera.

Nere iritziz, pauso bat aurrera izan da.

Ori dena orrela izanik eta nere lantxo au bukatzera noala, LE MONDE» (25-X-1972) nere eskuetara eldu da.

Frantziako Gotzaiak Lourdesén bildu dira aldian behin egiten duten bilkura batean.

Bi gai bereziki: bata Apaizgintza, eta bestea, Politika-Eliza eta Fedea.

Lehenengo gaiari elduko diot, rik.

Gotzai batek zuzendutako reflexio batetan onela dio: «gizon ezkonduak apaizgintzarako prest daude, eta bestetik gazte asko «serioak eta giza balore aundikoak», Eliz-instituzioetan sartzeko gogo aundirik ez dute.

Bestalde, Frantzian, 1971garren urtean berrehun (200) apaizek utzi dute beren apaizgintza (Berrehun auek ofizialak, ofizailki utxi dutenak, alegia, direlakoan nago).

Gaurko Elizaren egin behar latzenetakoa dateke 2.000garren urteko apaizak sortaraztea.

Nolakoa izango ote da 2.000garren urteko apaiza? «Futuristentzat» lan ederra. Gaurko Elizak, ordea, bide oiek gertatu behar.

Soziologia maillan edo gizarte-itxuran, pikutara doa apaiz-taldea. Apaiz eta gaiñontzeko kristau-ministerioek jarraituko dute, baiña, bai-desberdiñak izango direla!

Gotzai onek onela dio: «Ez dira izango gure eklarazioak eta gure jardunak 2.000-garren urteko apaizak nolakoak izango diren erabakiko dutenak, baizik eta kristau taldeen esku dago nolakoak izango diren esatea».

«Ez da nahikoa lehengo apaiz tankerak eta moldeak berritzea, bide berriak arkitzea da Elizari dagokion lana.

Bide oni jarraituz eta pentsaera orrek bultzatuta asi da Donostiako Eliz-Barrutiko experientzi berria.

Juan José GOENAGA

CAJA DE AHORROS MUNICIPAL DE PAMPLONA

SARASATE, 5 TELEFONO 224440

Onen ajentziak erri auetan dituzu:

Tudela, Billaba, Huarte-Iruñe, Etxarri-Aranaz, Txantrea, Errotxapea, Azagra, Eneritz, Martzilla, Isaba, Huarte-Arakil, Ensanche, Lerín, Otxagabia, Karkar, Olazagoiti, Sartaguda, Ablitas, Milagro, Fitero, Kadreita, Andosilla ta Noain-Beriain.

Agencias:

Tudela, Villava, Huarte-Pamplona, Echarri-Aranaz, Chantrea, Rochapea, Azagra, Enériz, Marcilla, Isaba, Huarte-Araquil, Ensanche, Lerín, Otxagabia, Karkar Olazaguiti, Sartaguda, Ablitas, Milagro, Fitero, Cadreita, Andosilla y Noain-Beriain.

MANTEROLA LIBURUTEGIA

Manterola, 8 Urrutizkiña: 42 50 72

—DONOSTIA—

OARRA

Adiskide askok agindutako «Katalogoa» edo zerenda noizko argitaratuko den galdetu digute Adierazi dugunez, 1.700 bat titulo bilduko ditugu gutxi-gorabera eta, dakizuenez, Euskalerriaz idatzitako lanekin osatua. Lan au lenbaitlen burutu naian gabiltza Gabonetan zabaldu aal izateko. Milla esker.

LIBRERIA MANTEROLA Manterola, 8

—SAN SEBASTIAN—

NORK KUKURRUKU¡¡¡¿¿¿

OLLARRAK

OLLOTEGIAN?

...Ez. FAGOR'ek

sukaldian

FAGOR

Baserriaren alde

EUSKAL ETA ERDAL



Caja de Ahorros Municipal de San Sebastián

Banen baneko azikay
Ongarri ta abonoak
Belar Zuloak

Erosi edo berritzeko diru aurreratzea

Baserri, lur-tresnak ta abar

Torelavega'ko Perira joan etorriak

(c) Ministerio de Cultura 2005

Durangoko VII liburu eta disku azoka

Azken zazpi urtetan bezala, Domusandu egunaren inguruan izan dugu aurten ere Durangon EUSKAL LIBURU ETA DISKU AZOKA. Azaroaren lean. ekin, eta hilaren 5ean., igande arratsaldez, amaiera eman zion datorren urte arte.

Durango eskualdeko «Gerediaga» Elkarteak eraturik, hiru egunetan izan dugu azoka irekia Santa Maria Uribarriko elizaren arkupetan, Euskal Herriko editorial gehienak bertan biltzen zirelarik. Eta gehienak diogu, ez bait ziren guztiak. Izan ere, zenbait ale soltez gainera. Baionako IKAS editorialaren bat ere ez genduen ikus ahal izan. Dena den, bataz beste, berrogeitaka editorialek aurkeztu zituen bere sorta guztiak, bai eta zenbaitek azoka honetarako propio argitaratutako azken aleak ere.

Jende asko, gehiegirik gabe. Bizkaitarrak ezezik, giputzak ugari eta arabarrak, edota gasteiztarrak behinik behin, anitz. Aurpegi ezagunak asko eta asko, ezezagunik noizik behin. Era honetan ezagutu eta agurtu genituen Bittor Kapanaga otxaindioarra, «Ezkibel» gasteiztarra, ETOReko Julen Lizundia eta beste. Gu ezagutu ginduen, berriz, Xabier Gereñok, guk geuk bera aspaldi ezagutzen bagenduen ere.

Liburu berririk ez askorik, euskarazkoen artean, hiruzpalau guztiz ere: JAKINen *Herriaren lekuko.* ETORen *Zenbait Hitzaldi* eta *Euskal Literatura I (XVI-XVII),* LURek argitara emandako Engels-en saiakera bi, eta planto! guk ikusi genduenez behintzat, haur ipuinak eta beste kontutan hartzere.

Esan berri dugunez, JAKINek *Herriaren lekuko* deritza bere azken aleari, eta Rikardo Arregi periodista on bezain oparo zenak JAKINen bertan, ANAITASUNAan eta ZERUKO ARGIAn batik bat, zazpi urteren buruan (1963-1969) idatzi zituen artikuluen bilduma dugu. Ez da hau, dakikegunez, Arantzazukoek Rikardori eskaini dioten lehen liburua. Aitzitik, lehen ere, argitara eman zuten Rikardok berak JAKINen bertan idatzi zituen artikulu eta saiakeren bilduma, eta oraingoan, berriz, astekari honetan idatzitako edozenbat lan motzago eskaintzen digute.

Rikardo Arregik denetariko gaiak erabili zituen sei urteren barrena: politika, harrigintza, gizagintza, Europa, erilijioa, sozialismoa eta beste amaika, Andoaingo seme honek etsi gabe ekin bait zion lanari, bere bizitza laburraren berri aurrez jakin izan balu bezala. Eta honetaz, gaiei buruz, lehen bilduma hartan Rikardoren lanik sakonenak eta mamitsuenak azaldu baziren ere, honako bigarren bilduma hau osatzen duten lanei, aldiz, halako dinamika bat darie, kazetalaritza bizi bizi bat, Rikardo beraren ezagugarri. Zeren, Joxe Azurmendik hitzaurrean ondo asko dioenez, Rikardo noizik behingo aldizkaritako artikulugile baino, egunkaritako gizona eta periodista genduen —gure kasuan, tamalez, astekaritakoa—, hain bizi izan zen larri, prixaka eta harrapataka. Bestalde, gure artean iraun zuen artean, euskal testigu paregabea izan genduen Rikardo, eta hau dateke, behar bada, edonork bere herriari egin diezaiokeen zerbitzurik baliotsuena. Ezin aukerakoagoa ba, atzo haren adiskide eta lankide izana, eta gaur harek utzi zizkigun lanen biltzaile den Joan Mari Torrealdayek bilduma honi jarri dion izena: HERRIAREN LEKUKO.

Horrez gainera, Joxe Azurmendiren hitzaurrea aipatu dugu zirriztada batetan, baina aparteko aipamenen bat merezi duelakoan gaude. Izan ere, ez hasiko gara orain bilduma honi garrantzirik murrizten, baina ezin dezakegu ere ahaztu, askok ez duela dagoeneko balio handirik gaurkotasunaren aldetik, eta txarrenean ere, lehen argitara emanak direla guztiak, bat ezik: *Ezin etsi,* amaitzeka utzi zigun entseguren baten hasiera, alegia.

Beraz, Azurmendiren hitzaurreari atxikiz berriro ere, baderitzagu hitzaurrea bera dela liburu edo bilduma honen muina, bertan azaltzen bait da Rikardoz zenbait iritzi eta xehetasun jakingarri, sarri askotan, irakurlearentzat, Rikardoren beraren lanak baino adiarazgarriago. Gainera, Rikardo ez zen, noski, bat-batetan sorturiko gizona, haren aurreko giro eta abiada baten ondorio edo genduen, eta arlo honetan ematen dizkigu Joxek ondorengo euskal mugimenduaren berri jakingarriak.

ETOR, bere aldetik, ustegabeko berri txalogarri batez azaldu zaigu aurten Durangon, ohi duen sailari jarraituz ezezik, beste sail berri bati ekin bait dio, eta gazterentzat bereziki burututako sail bati ekin ere. Honako honi *Kimu* deritza, eta Joshe Erzibengoak eta Patxi Ezkiagak prestatu duten lehen alea *Euskal Literatura I (XVI-XVII)* dugu, hiru tomotatik lehenbizikoa dena.

Ohizko sailari dagokionez, bestalde, 1970 urtean Donostiako E.U.T.G.-en eratu uda ikastaroan Koldo Mitxelenak eman zituen *Zenbait Hitzaldi*ren bilduma dugu. Hitzaldi hauk gaztelaniaz eman ziren arren, Juan Antonio Letamendiak euskaraturik agertzen zaizkigu oraingoan, liburu azala eta donostiarrak berak egina delarik, guztiz polita gainera.

LURek, azkenik, Friedrich Engels sozialistaren bi saiakera eskaintzen dizkigu, Xabier Kintanak itzulirik: *Sozialismoaren Aurrerabidea Utopiatik Zientziara* eta *Lawig Feverbach eta Aleman Filosofia Klasikoaren Amaiera.* Liburu hau itzultzaileak berak moldatutako hiztegi batek osatzen du, non irakurleak aurki ahal izanen du gai hauk erabiltzeko beharrezko den zenbait hitzen zentzua eta esangura.

Honaino, gure ustetan, aurten Durangon azaldu diren euskal liburu berriak. Sorkunde lan guti, beraz, itzulketak, bildumak, taxuketak etab., baina egiazko sorketarik ez. Zer dela eta? Programazio eza, irudipenik ez, edota denbora kontua? Batek daki! Bestalde, besterik ez azaldu da, noski, nahiko berririk gainera; horra hor, esate baterako. Zarauzko KULISKA SORTAk argitara eman duen Martin Ugarte legazpiarraren *On egiñaren obaria* izeneko nobela, Juan Garmendiak AUÑAMENDIren barrena eskaini digun *Euskal Esku-langintza* deritzan sortaren hirugarren alea eta, behar bada, besteren bat edo beste. Baina, guztiak berriak izanik ere, Durangoko Azoka aurretik ezagutzen genituenak.

Azkenik, maila guztiz herrikoi batetan, ezin genezakeen aipatzeka laga azoka honetan aurkeztu eta zabaldu zen EUSKAL IZENDEGIA, Euskaltzaindiaren arduraren pean Jose M.ª Satrustegi nafartarrak prestatu berri duena. Bataz beste, zazpirehun bat izenek osatzen du izendegi berri hau, izen bakoitzaren aztarrena azalduz, zein urtetan agertzen den, zein dokumentutan, nor zen —inor bazen—, eta beste zenbait xehetasun, izenei dagokien legeria zorrotzari erantzunez, ohizko erdal itzulpenik ez duten izenak bilduz.

Berrogeita sei orrialdedun liburuxka bat duzu, irakurle, Euskaltzaindiak argitara emana, Iruñeko «La Vasconia» banka-etxearen diru languntzaren pean. Lehen argitaraldi honetan 50.000 ale zabaldu dira, dohan gainera, beren haurren bait euskal jarri nahi lioketen gurasoei eskainia, non ikus eta non aukera izan dezaten, bai eta gure errejistrotako arduradunei ere, fantasmak ikusten jarrai ez dezaten.

Azokaz gainera, edota azokaren inguruan, bi hitzaldi eratu ziren hilaren 2 eta 3an. Ostegunean, Euskaltzaindiko idazkari den Juan San Martin jauna gaur eguneko euskal literaturaren egoeraz mintzatu zen, edo, hobeto esan, euskal liburuari berari buruz, urtearen barrena zenbat liburu argitaratu ohi diren jakinaraziz, nolako gaiak diren erabilienak, zertaz ez den idazten, euskaraz ditugun aldizkarien berri etab. Biharamunean, aldiz, ostiral arratsaldez, Dorao Lanzagorta bilbotarrak Gernika-Bermeo eskualdeko giza-ekonomiaz ihardun zuen, bai eta esan ere, halakoren bat beharko lizatekeela Durango eskualdean egin. Jenderik benetan guti hitzaldietan.

Larunbatean, berriz, asmo benetan bikaina Gerediaga Elkartearena, euskal editorial guztiekin mahai biribil bat eratzea asmatu bait zuen. Ez da hau bat batetako idei, ez eta aurtengoa ere, orain dela lauren bat urte burutua baizik, baina, itxura denez, ez zen posible izan orduan halakorik egiterik. Izan ere, sasoi hartan ez zegoen gaur dugun hainbat euskal editorial, eta behar bada, zeudenak ez zuten jakin —edota nahi izan— zenbait harreman interesgarritan hastea. Gerztik, lau urte joan zaizkigu, alferrik ez, ordea, eta hara non gerediagatarrek lort ahal izan dute aurten zenbait editorialetako arduradunak mahai —biribila ezean kuadratua— baten inguruan biltzea.

Bertan ginen gu ere, Jose Luis Lizundiaren deiari erantzunez, eta Gerediaga Elkarteko zuzendari den Alberdi jaunaren zuzendaritzaren pean, Iñaki Beobide (Irakur Sail), Xabier Gereño (Cinsa), Xabier Kintana (Lur), Aita Zabala (Auspoa), Julen Lizundia (Etor), J. M. Agirre (Gerediaga), Jose Luis Lizundia (Euskaltzaindia) eta J. M. Retana (La Gran Enciclopedia Vasca) bildu ziren zerbait egin nahian.

Lehendabiziko biltzarra genduen Durangoko hau, eta ez dugu uste problema guztiak bertan konponduko zirenik inork esperoko zuenik. Zailena hastea izan ohi da, hain toki desberdinetako jendea biltzea, elkarrizketa bat planteatzea eta elkarrekin lehen lehen mailako harremanetan ekitea. Guzti guti hau eginez gero, borondate apur batez, gainontzekoak berez berez etor daitezke.

Liburuen katalogazio eza aipatu zen lehenik biltzar honetan. Ez omen dago euskal liburuen katalogo funtsezko bat. Jendeak azoketako katalogoak erabiltzen omen ditu bere premietarako, besterik ez bait dago, eta, egia esan, azoketan ateratzen diren katalogoak ez dirateke «katalogoak», liburu zerrendak baino.

Honetaz erabaki zen, Gerediagak egin zezakeela katalogo hori datorren urterako, editorial guztien laguntzarekin. Editorial bakoitzak bere liburu guztien fitxak prestatu eta bidali beharko dizkio Gerediaga Elkarteari, gaien eta autoreen arauera aurkibide bat eginez, neurria eta prezioa ezarriz, eta —orain arte egin dena— liburu bakoitzaren gaiaz eta mamiaz hiruzpalau lerrotxotako eraskin batez, euskaraz edo erdaraz den, etab.

Material guzti hori nola agerarazi katalogo delakoaren barrena, hots, gaien ala editorialen arauera, hurren batetan erabakitzeko utzi zen. Oraingoz, gauza batez etorri ziren denok bat, euskarazko liburuari garrantzi gehiago eman behar zaiola halako katalogo batetan, eta modu batez edo bestez bereiztu eta nabaritu behar zela.

Ondoren, Gerediagako Zuzendari den Alberdi jaunak, Durangoko Azokari buruzko kritika eskatu zien han bilduak ziren editorial arduradunei, nork bere iritzia hartaz emanez, eta datorren urterako ahal den neurrian zuzentzeko asmotan.

Azkenik, Jose Luis Lizundiak, Euskal Herriko bibliotekariekin beste biltzar bat egiteko zela jakinarazi zigun, nork besteren berri jakin dezan, eta pozik asko esan zuen, gure biblioteketako arduradunek uste baino harrera hobeagoa eman diotela asmo honi.

Eta, amaitzeko, Gerediaga Sariari buruz hitz bi, labur labur. Irakurleak dakikeenez, Gerediaga Elkarteak sariketa bat muntatu zuen, 1971 eta 1972 urteen barrena argitara emandako liburuen artean, alderdi guztietatik liburu baliotsuena saritzeko asmotan. Izan ere, bi sari ziren, bata euskarazko liburuarentzat eta bestea erdarazkoentzat.

Hilaren 5ean, igande goizean, bildu ziren Bittor Kapanaga, Nikolas Alzola eta Juan San Martin mahaiko jaunak eta honako liburu hauei eman zieten harako Gerediaga Saria:

Euskal liburuetan, Saria: MITXELENAREN LAN HAUTATUAK (Etor); aipamena: EUSKALDUNAK POEMA ETA OLERKI GUZTIAK. Orixe. (Auñamendi); irakaskintza mailan: FITXAK EUSKERAZ. Mendiguren-Zabaleta. (Cinsa).

Erdal liburuetan, Saria: EUSKO BIBLIOGRAFIA. Jon Bilbao. (Auñamendi); aipamena, OBRAS COMPLETAS DE BARANDIARAN (La Gran Enciclopedia Vasca).

Luis A. Aramberri

Laspiur - Intxausti

Altuna





(c) Ministerio de Cultura 2005